

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Esku batekin arbasoek bidalitako
idatzizko keinua IÑAKI ALTUNA > 11

KOADERNOA

Iraganaren eskua, ahanzturatik
askatua XABIER IZAGA > 21

2022ko azaroaren 19a | XVI. urtea • 800. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



«GURE GURASOAK SILUETA BELTZ BAT IZAN DIRA ETA GU, IKUSEZINAK»

IKUSEZINAK ETA EZ ULERTUAK SENTITU IZAN DIRA EUSKAL IHESLARI ETA DEPORTATUEN SEME-ALABAK. SEKULA EZ
DA ADITZERA EMAN HAIEN ERREALITATEA, ORAIN GUTXI ARTE: MIREN AZKARATEK HAIEN TESTIGANTZA ETA
BIZIPENAK JASO DITU «IKUSEZINAK. ERBESTERATUEN HAURRAK» LIBURUAN. > 12 Jon URBE | FOKU



4



8



17



Elon Musk, botere gehiegi pilatu duen pertsonaia arriskutsua 04

Armadek aldaketa klimatikoan duten eragina salatu dute 08

«Ikusezinak», deportatu eta iheslarien seme-alaben hitzak benetako memoria osatzeko 12

Pantaila txikian: Lau urtaro, zortzi telesail 17

Gema Sangines Saiz: «Euskaraldia landatzeko unea da» 22

«Natibo digitala» izateak ez du trebetasun digitala ziurtatzen 26

Ane Elordi, Korrikaren arduradun berriari elkarriketa 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



22



28

SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:** Aukerak egiteko eskuliburua
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Ez datorkigu fabrikatik
- 11 **Iñaki Altuna:** Esku batekin arbasoek idatziz bidalitako keinua
- 20 **Ana Elozegi Serna:** Hurrengo batean ikusiko dugu elkar zoriontasunaren iraultzan
- 21 **Xabier Izaga Gonzalez:** Iraganaren eskua, ahanzturatik askatua
- 27 **Miren Azkarate Badiola:** Ikusgarritasunerantz elkarrekin
- 27 **Asier Aiestaran:** Hezkuntza legeaz, adibide pertsonaletik
- 30 **Naiara Aginako Bengoa:** Nola zehazten dute intsektu hegalariek grabitatea?



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Aukerak egiteko eskuliburua

Beren hizkuntza eskubideak aldarrikatuz harrapatu zituen Irulegiko aurkikuntzak euskararen transmisioa bermatzeko kosta ahala kosta ari diren gazteak. Azterketak euskaraz idazteko eskubidea beste behin ere karrikan aldarrikatuz banderolari eskuak lotuak zituztela munduratu zen Nafarroako aztarnategi batetik heldutako 'sorioneko' berria. Beharrik, Irulegi eta Bordele arteko haria josi zuten Bernat Etxepare lizeoko ikasleek beraiek sare sozialetan bidez. @SelaauruaBetez Twitter kontutik hauxe adierazi zuten: «#Sorionekuak K.a. euskaldunak, hauek idazten ahal zuten euskaraz. K.o. 2022. urteko euskaldunok debekatua duguna».

Iraganari begiratzea ez da beti erraza. Horren frogarik onena, norberak nahierara antolatzen duela sarritan memoriaren biltegia, eguneroko bizitzan traba handirik egin ez dezan. Kontraesanez beteriko giza-kiak garenez, gaur memoriaren beharra aldarrikatzen dugu, eta bihar ahanzturaren eskubidea. Dagoneko itzuliko ez den denborarekin dugun harreman konplexua aitortuz.

Tarteka, orainaldiari neurria hartzea aldapa go-
ra egiten zaigunean, iragana aterpe bilakatzen zaigu, jakinik ere pasatutako urak ez duela errotarik mugituko.

Brontzezko eskuak agur goxoa egin digu urrutiko iraganetik, desagertzeko beldur atabikoari bizirik irauteko determinazioa etengabe berretsiz aurre egiten dion herri veterano honen bihotzari taupada berria emanez.

Bat-bateko zoriontasuna izan da, azaleko sentsazio bat, barnetik ahoraino dantza egin duen irribarrea.

Bordeleko protestarekin batera soilik ez, ahozko-
tasunaren olinpiar jokoak ospatzen ari direnean heldu da hizkuntzalarietatik hasita Akademiako bertze jakintsu anitzen burua borbor jarri behar lukeen lan hipotesia.

Bide luzea egiteko badute ikerlariak, baina haien lan giro isila trabatzeko asmorik gabe, utz diezaio-
gun

behingoz Euskal Herriko txapelketa nagusiaz gozatzeko –zein sufritzen– ari den bertsozale orori pasadizo zirraragarri horren gainean oholtzan harilkatuko diren kontakizunen kontura irriak eta malkoak isurtzen.

Aukerak orainaldian jokatzen badira ere, tartean, atzera begiratzen dugu dagoeneko gurekin ez daudene-
k aurre egin dezagun ematen diguten bultzadaren esperoan.

Bestearen eskua sentituz egoera ezezagunek sortzen dizkiguten hotzikarak urtzea errazago baita.

Nahiz eta jakin badakigun geroari egotzitako itzalak guztiz argitzea ezinezkoa izanen dela, hurbileko laguntasunaren bertsio alfabetatu den eskuliburua xerkatzen dugu, etsipenaren aldeko apologia interesatuaren garaian katilua konfiantzaz berriro ere betetzea ezinbestekoa delako.

Gaur zortzi, bertsolariak Baionan eskuetako hatz jokoe-
kin hasi aitzin, mugimendu abertzaleak, hamabost urteko ibilbideak utzitako irakaspenak aintzat

Hamabost urteko ibilbideak utzitako irakaspenak aintzat hartuz, Euskal Herria Baik esku zarta emanen du Parisek ezarritako harresia urratu nahian

hartuta, esku zarta emango du frantses Estatuak ezarritako kaiolatik irtenbide demokratikoa aitzineratu nahian.

Herri hitzarmena eguneratzeko proposamena mahai gainean ezarriko du Euskal Herria Baik. E-
tapa berria irekitzeko eskuliburuaren idazkera konpartitua gizar-
teari eskainiz. Eskumen banaketatik harago, erabakimena Euskal Herrian kokatuko duen prozesua aitzinera eramateko orduan Euskal Elkargoaren bilak-
erari buruzko eztabaida «ordenatua» abiatzea lagungarria izanen da. Eskua ez ezik begirada ere zabaltzeko tenorea baita. •

Elon Musk notizia da, beti da notizia. Egoa puztua, jeinu eroa, Twitterren jabea eta suziriak pun! espaziora, denetarik, denagatik, zalaparta sortzen eta atentzioa beregatatzen artista dela aitortu behar zaio. Negozioetan eta showman bezala ona da, baina besterik da gauza gutxi batzuetan ona izanagatik gauza guztietan onena zarela pentsatzea, nahiz eta munduko pertsona aberatsena izan, edo milioka jendek adoratu.

erantzun pavloviarra sorrarazten du. Gutxi egongo baitira bera bezalakoak, hain modu erabakigarrian finantza ekosistema birtualeko kotizazioetan eragiteko, agintariek ezer egin gabe, gainera. Bitcoinaren balioa ia bikoiztu egin zen bere iruzkin sinple baten ondoren. Horixe baitauka milioka jarraitzaile dituen kapitalismo modernoaren idolo izateak. Ospetsua eta famatua izatea bainoago, ekonomia politiko berri baten egile eta abatar izatera heltzen zarela.

Lizentzia hartu eta izena ere jarriko diogu ekonomia politiko mota horri: Karl Marxetik marxismoa nola, Elon Musketik «muskismoa» sortuko dugu kapitalismoaren forma zinez muturreko, bitxi eta benetan estralurtar bat definitzeko. Mugarik eta txkeorik gabeko kapitalismo bat, non ekonomia erregulazioan, praktikoki, gobernuak zereginik izan behar ez duen. Eta kulturalki, herriari saltzen dio-na futurismoa dela bidea, bide bakarra. Eta ekonomiari baldintzak norbaitek jartzekotan,

horrek bakarrik jarri behar dizkiola. Kapitalismo «txarra» dela hau? Bada, onartzen ez baduzu, gauzak askoz ere okerragoak ziren garaietara eramango zaitu. Inbentatua zegoela jada? Ez, inbentatu behar delako, beti, etengabe, puskatzaileak diren berrikuntzei lotu, futurismoaren kulturaren parte delako. Dena da aurrera begirakoa, iraganik ez dago, zaborrantzira botatzen da, nahita. "Time" aldizkariak, 2021ean, «urteko pertsonaia» izendatu zuen. Aldizkariaren ustez,

{ analisia } **Mikel Zubimendi Berastegi**

Elon Musk: suziri, txio, pun!

Beste horrenbesterentzat jasanezina delako, demagogo eta egolatra totala, botere gehiegi bere eskuetan kontzentratu duen pertsona oso arriskutsua. Ego oso delikatua dauka, eta hori, bere baitan arazo bat litzateke daukan aberastasuna izango ez balu ere. Musken benetako arriskua, baina, pertsona bakar baten esku horrenbesteko aberastasuna pilatzen eta oraina eta geroa kontrolatzeko erabiltzen uzten duen sistema batean dago. Jendeak bere patua erabaki eta kontrolatzeko beharra daukalako, Musk bezalako pertsona baten esku utzi gabe espaziora eraman edo lanaren etorkizuna nolakoa izango den erabakitzea. Bere hitz bakar batek, dela kriptotxanponen inguruan egindako iruzkina dela Twitterreko txioa, inbertsoreengan

Elon Musk superlatiboan jokatzen da: munduko aberatsena, arrakastatsuena, Jainkoa baino gurtuagoa, eta polemikoagoa. Ia estralurtarra, muturrekoa den kapitalismo xeblebrearen –«muskismoa»– egilea eta abatarra da.

«teknologiak dena posible egingen duen etorkizuna ikusten duen bisionarioa da, herrialdea gelditu eta legeak, murrizketak, mugak, trabak eta Facebook ez beste ezer ekoizteari utzi zion arte AEBek izan zuten iragan industrial loriatsua lehengoratu duena». Baina narratiba anpulozo horrek ortopedia garrantzitsuak ditu: has-teko, Musk ez delako aberastu ekoizpenagatik. Eta, gero, aberastasuren bidean langile arruntak hil edo mutilatzen badira, gaitz erdi, aurrerabidearen alde ordaindu beharreko prezioa delako. Musk baroi lapur modernoa da, eta bere determinazio bihozgabeak legea edo gizartea bezalako muga meheak pasatuko ditu etorkizunari forma emateko. Bere dohainen artean ez dago jendearekiko enpatia. Bere filosofia zehatza

da: irabazleak dena hartzen du; nahiz eta irabazteko beste batzuen laguntza –gobernuarena barne– hartu behar badu ere. Adiskidekeriaren kapitalismoa da pandemia-ren miseriazko urteetan gehien aberastu eta kapitalismo aspirazionalaren posterreko mutil bezala proiektatzen dutena. Arrakasta historia haragitua da, dadoak beti alde dituen.

Bisio kosmikoa

Aukera infinituen abatar berria omen da, aurrekaririk gabekoa logiko egiten duena, Lurra eta gu guztiak oraindik salbatu ahal izateraino. On handiago baten aldeko bere bisioa kostu humanoekin dator, itzelak askotan, baina narratibaren arabera, ordaindu beharrekoak dira.

Bere ekintzak buru argi, konplexu eta zirraragarri baten ondorioak omen dira. Pailazokeriak maite dituen jeinu batenak, abangoardiaren jabea, bisionarioa, showman peto-petoa, zital totala. Edo Asperger sindromea zeukan ume hegoafrikar batenak, umezaro ikaragarri bat atzean utzi eta tragedia pertsonala gainditu zuena anbizio kosmiko bati jarraitzeko.

Apartheid-arekin ez kolaboratzeko, betiere narratiba beraren arabera, Kanadara jo zuen eta Fisikako ikasketak utzita Kaliforniara jo zuen, Silicon Valley-ra, hain zuzen ere, 1999ko «.com» burbuilaren mozkorraldi betean. Lurrean lo egiten zuela start-up batekin hasi zen, hura saldu eta PayPal sortu zuen gero, Interneteko ordainketa sistema arrakastatsuena bilakatu

zena. Tesla auto elektrikoen konpainia sortu eta ardurdun nagusia da, eta Marte kolonizatzeko ametsari jarraituz, SpaceX konpainia sortu zuen ere (Ukrainako gerran ezagun egin den Starlink satelite bidezko Internet sarea barne), eta bide horretan munduko pertsona aberatsena bihurtu da. “Forbes” aldizkariaren arabera 280.000 milioi dolarren jabe da, broma gutxi.

Famatuenak PayPal, Tesla edo SpaceX konpainiak izan arren, energia berriztagarrien alorrean dabilen SolarCity-ren jabea ere bada, garraio sistemetan diharduten Hiperloop eta The Boring Company edo neuroteknologia alorreko Neuralink konpainiena bezala. Bere enpresa ekimen hauetan guztietan, ia sortze beretik, eguneroko ku-

deaketan buru-belarri sartua egon da Musk. Orain, baina, jostailu berri bat gehitu berri du bere bildumara: Twitter. Besteak ez bezalakoa, baina beste konpainia horien guztien promozioaren eta marketinaren alde erabilgarria, besteak beste.

Gero eta irrealagoa den pertsonaia publiko hau bere baitan marka bilakatu da, ziurrenik bere konpainiak baino ezaguterrazagoa. Mugarik gabeko bere aberastasuna jokaera bitxi eta xelebre batekin tartekatzen du. Baina ez pentsa bere konpainien bilduma bere poltsikotik edo bere lagunaren inbertsioekin bakarrik finantzatu duela. Bere dirua gastatuko balu, bada, hainbestean, baina “Los Angeles Times” egunkaria 2015. urtean jada salatzen hasi zenez, SolarCity, Tesla Mo-

Munduko pertsona aberatsena showman handia da, zalaparta sortu eta atentzioa bereganatzea arnastea bezain beharrezko duena.
Frederic J. BROWN | AFP



tors eta SpaceX konpainiek 4.900 milioi dolarreko dirulaguntza federalak eskuratu zituzten. Eta Kaliforniako fiskalitateari zorrotzegia iritzi-ta, ekoizpen planta asko Texasera eramanez, horren truke estatu hartako opari fiskal handi askoak lortuz.

Ez da bakarrik bisio kosmikoa, misio puztuak ere beharrezkoak ditu «muskismoak»: lanaren etorkizuna eraldatu, gizateria osoa konektatu, mundua bizileku hobe egin, planeta osoa salbatu. Kapitalismo forma honek, publikoki eta sukar puntu batekin, hondamendi zital eta suntsitzaileen gainean kezkatua dagoela zabaltzen du, guztien artean nabarmenena klima aldaketa, edo X faktorea, X arriskuak, gizate-riaren balizko estintzioa. Eta salbazioaren bidea gizakia es-

pezie interplanetario egitea dela aipatuko dizute, edo bestela salbaziorik ez dela egongo. Eta, jakina, esan gabe doa salba gaitzaketen bakarrak teknobilioidunak direla.

Enpresari gisa dauzkan abilitadeak ez ditugu zalantzan jarriko. Argitalpen espezializatuetan bere negozioetan bisio sendoa, antolakuntza zorrotza eta baliabideak mobilizatzeko gaitasuna usu aipatzen dira. Baina estrategia bat dauka ala estrategia daukan plantak egiten ditu? Zer da Elon Musk, bisionario xelebrea edo askoz ere arrisku-tsuagoa den norbait?

Troll handiena

Bisio argi eta sendoa behar dute negozioek zentzu eta asmo bat izateko. Eta negozioek bezala, baita politikak eta bi-



Musk Texasen, Tesla konpainiako «gigafaktoria» berriaren aurkezpenean. Suzanne CORDEIRO | AFP

Arestian aipatu bezala, jostailu berria dauka ume handiak bere bilduman, edo nahi bada, bere megafono gustukoena. Eta berea egin bezain pronto, munduaren aurrean azaldu da adierazpen askatasunaren zaindaria gorena moduan. Inor izatekotan, bera dela adierazpen askatasunaren absolutista handiena aldarrikatuz, «(Twitterreko) txoria libratu» duen salbatzailea. Eta ez duela dirua irabazteak bultzatzen aipatzen dute, are zeukan benetako balioa baino gehiago ordaindu duela, nahiz eta konpainiaren jabe egin bezain pronto milaka langile kanporatu dituen.

Aitzitik, behar moral batek bultzatuta egin du. Gure hobe beharrez. Baina ez, hain tuntuak ere ez gara. Eta badakigu, “Forbes” aldizkarian bertan irakurri ahal izan du-

zitzak berak ere. Tira, adin batean aurrera goazenok gogoratzen dugu nola 1980ko hamarkada goraipatu hartan Bill Gates ezagutu genuen eta baita bere konpainiaren –Microsoft– bisio sonatua ere: «ordenagailu bat idazmahai bakoitzean etxe guztietan». Elon Musken konpainia guztiek beren bisioa daukate: Teslarena «energia jasagarrietara munduaren trantsizioa azkartu», SpaceX-ena «gizateria interplanetarioa bihurtu», eta abar.

Bestalde, kapitalismo aro guztiek definitu dituzten «negozio gizon» arrakastuak dauzkate, beren izar partikularrak. AEBetako historian oso nabarmena da hori. XIX. mende amaieran John Rockefeller eta bere Standard Oil konpainiak herrialdera petrolio merkearen iraultza ekarri zuten. XX.

mendearen erdian, Alfred P. Sloan, General Motors Group-eko nagusiak, autoen ekoizpen eta salmenta ugartzeaz gain, negozio eredu arrakastatsu eta antisindikala haragitu zuen. XX. mende bukaeran eta XXI.aren hasieran, Steve Jobs, Apple Inc.-eko sortzailea, berrikuntza eta aldaketa sozialaren ikonoa izan zen, teknologiaren bilakaeran azterna sakona utziz. Zaila da esatea Muskek horien liga berean jokatzen duen ala ez, baina horrela proiektatzen da. Futbolaren adibidea jarrita, aurrekoak Pele edo Maradona izango lirateke, eta Musk, Messi. Edo, hobe agian, mesias berria.

Ez da, ordea, estatus horren bila dabilen bakarra. Hor daude Amazonen jabe den Jeff Bezos edo Meta konpainia –besteak beste, Facebook, Instagram eta Whatsapp pla-

taformen jabea da– sortu berri duen Mark Zuckerberg, esate baterako. Metabertsoan, unibertsoaz harago doan mundu birtuala den heinean, abatar bat bezala igaro deza-kezu eguna paradisu-ko uharte bateko festara joanez, luxuzko yatean edo espazioko suziri batean bidaiatuz, hiperraberratsa izango bazina bezala. Metabertsoa kapitalismoaren historiaren ilustrazioa eta distrakzio bat da. Eta orain teknobilioidunak kapitalismo berri bati forma ematen ari dira.

Elon Muskek Mark Zuckerberg *trolleatu* zuen Metabertsoa aurkeztu zuenean. Zerbaitengatik jarri diote «Twitterreko troll handienaren» etiketa. Kontua da, baina, metabertsoa edo Musken Marterako misioak edo Ilargirainoko turismo bidaiak, denak direla berdina: mutu-

rrekoa, ia estralurtarra den kapitalismoaren kide txikiak. Kapitalismo forma bat non akzioen prezioak, irabaziek baino, zientzia-fikziozko fantasiak gidatzen eta zehazten dituzten.

Absolutista

Elon Muskek notizia izatea behar du pertsonak arnastea behar duen bezainbeste. Azken hilabeteotan Twitter konpainia erosiko duela, gero atzera bota dela, berriz erosteko asmotan dela eta, azkenean, behingoagatik, erosi duela izan da notizia. Bazterrak harrotu dituena. Bere hitzetan, «plaza publiko birtual eta globalaren» jabea da, eta aurrerantzean, betiere bere esanetan, adierazpen askatasuna ez da murriztua izango, ezta edukiak zorrozki monitorizatuak izango ere.

gulako, 2021. urtean (pandemia betean) AEBetako hamar aberatsenetatik zortzik sare sozialetan eta bertara iristeko bide eta gailuetan akzioak zituztela. Alegia, sare sozialak, ustezko plataforma publikoak, plutokraten esku dauden plataforma egin direla. Eta arrazoiak ere irudikatzen ditugu: sare sozialen bitartez sinesmen kolektiboak, azkar barreiatzen diren praktikak eta masen jokaera kontrolatzen dituztelako, are erosten ditugun gauzak, esaten ditugunak eta betikitzen diren ideiak.

Aurrerantzean, beraz, ez da bakarrik izango Muskek Twitter erabiltzen duela akzioen eta kriptotxanponen prezioekin jokatzeko, edo orain den ahotan den Donald Trump berriz baimenduko ote duen; ez, kontua da teknologiaren bilioidunek infor-

mazioaren bitartekoen jabe egin eta nola kontsumitzen dugun erabakiko dutela.

Eta, esan bezala, zalaparta sortzearen eta atentzioa bereganatzearen mendekotasuna pairatzen duen Muskek nola zuzenduko duen aurretantzean Twitter ikuskizun dago. Baina txio egindako ideia indartsu batzuk aurreratu daitezke: «Mundua salbatu nahi? Elon Musk pila bat behar ditugu»; «Gizakien geroa interplanetarioa izango da edo ez da izango», eta abar. Serbiako aurrekontuena baino balio handiagoan, ia Lituaniaren parekoan erosi duen konpainiako langileek, bestalde, badakite zer espero ahal duten: misioari lotzea, gorputz-arima lotzea, familia bizitza edo kontziliazioaren gainetik. Hori daukate «jeinu jasanezinek». Eta Steve Job-

ko batean ume jaioberria be-soetan duela azalduko da munduaren aurrean semearen izenaren berri emateko: X Æ A-12. Bai, irakurtzen den bezala (X aldagai ezezagunagatik; Æ ortografia elfikoan

eroso sentitzea. Xake mundua inarrosi duen Carlsen eta Niemannen arteko tranpa salaketan erdian, bi pitbull horiek nahiko ez balira bezala, han azalduko da Musk, Twitterretik nola ez,

Beren bizitza Elon Muskekin partekatu duten emakumeek kontatu dutenez, bikoitekide ohi eta haren bi semeren ama izan zen Justine Musk idazleak “Marie Claire” aldizkarian idatzi

aberatsenak Karl Marx maite duela dio. Are, agian munduko antikapitalista handiena egiazki kapitalista bat izan zela, eta bere obra nagusia, “Das Kapital”, horren lekuko dela. Ia-ia Kafka intsektu bat zela esatea bezala, “Metamorfosia” bere lanak kontatzen duen istorioan Gregor Samsa izeneko gazteak, goizean esnatzean, intsektu bihurtu dela ikusten duelako alegia.

Saltsa guztietako perrexila da. Libertarioa dela dio, erdi demokrata eta erdi errepublikanoa, demokratengandik eskuinetara eta errepublikanoen ezkerretara kokatzen dela. Munduko gatazka eta gerra guztietan muturra sartzea gustukoa du. Pandemiaren itxialdiak «faxistak» zirela aipatu zuen, baina bera izan dela garai horretan

sen heriotzaz geroztik, ez da hura bezalakorik egon, inork ez du hainbeste haserre piztu, Elon Muskek marka guztiak hautsi dituen arte.

Saltsa guztietan

Beti da notizia eta hala izaten segituko du, bai: Thailandiako kobazulo batean gaztetxoaren futbol talde bat urak harrapatua geratzen dela eta mundu osoa larri-minetan daukala berriak, han azalduko da Musk bere urpeko ontziarekin gaztetxoak salbatzeko pronto. Eta urpekari batek haren plana aldrebeskeria dela esan, eta pedofilo bat bezala salatuko du. Bere bizitza pribatuarekin berdin. Hiru aldiz dibortziatua –bi aldiz emakume berarekin– eta bederatzi seme-alabaren aita –hirukiak eta bi bider bikiak–, eta hala-

gustukoena duelako, eta A-12 bere hegazkin gustukoena izan zen SR-17-aren aurrekoa izan zelako).

Borrokak eta polemikak maite dituen sasijakintsua izanik, eta ego zinez oso handikoa, normala ere bada putzu guztietan hanka sartu eta plisti-plasta horretan

ipurtzuloan sartzen diren gailu elektromagnetikoen teoriari sinesgarritasuna emanek. Edo marihuana kontsumitzailea dela aitortzeko, edo bere burua anarkista utopiko bezala aurkezteko, bere idazle gustuko den Iain Banks eskoziarrak definitu zen moduan.

zuen pieza gogoangarrian bezala, berarentzat ligatzeko plan hoberena neska hoteleko gela batera eramatea eta lokartu arte suzirien eta zientzia-fikziozko pelikulak ikustea da.

Eta probokazioa muturre-raino eramanez, munduan inoiz izan den kapitalista

gehien aberastu den pertsona ez du aipatzen. Taiwan Txinako gune administratibo espeziala bihurtu behar dela dio edo Ukrainako gerra soluzionatzeko bake proposamenak egiten ditu, Kiev eta Taipeiren haserreak piztuz. Ez, Elon Musk ez da politikoki urruntzen den horietakoa.

Bakoitzari berea, negozioetarako eta showman bezala ona da, baina ustezko jeinua- ren inguruan sortu den gurtze horren merezimendurik ez du. Demagogotik asko daukalako eta, bereganatu duen boterea ikusita, arrisku oso handitik are gehiago.

Gizakiak azken mendeak monarkiak eta feudoak garaitzen pasatu ditu. Ez litza-teke batere zuhurra izango haien bertsio berri eta berekoienei jaun eta jabe bihurtzen uztea. Inondik inora ere.



Twitterreko jabe berriak «plaza publiko digital globalaren» jabe izatearen anbizioa ez du ezkututzen. Angela WEISS | AFP

GERRAK ETA KLIMA

Ukrainako gerrak azaleratu du armadek larrialdi klimatikoan duten eragina

Ukrainako gerrak azaleratu egin ditu armadek eragiten dituzten berotegi efektuko gas isurketa masiboak. Gutxitan aztertzen dira halako datuak, eta aztertzen direnean kalkulu okerrekin josita aurkezten dira, Egipton amaitu berri den COP27 larrialdi klimatikoaren goi bileran adituek salatu dutenez.

«Isurketa handiak egiten dira gerra eremuetan eta ez du inork aintzat hartzen», salatu du Xarm el-Xeikhen egin den nazioarteko gailurrean Axel Michaelowak, Zuricheko Unibertsitateko Nazioarteko Klima Politika Ikerketa Taldeko buruak.

“Nature” aldizkari zientifiko ospetsuak urte hasieran argitaratu zuen aditu talde baten ikerketaren arabera, gerra den-

INGURUMENA / AFP

Armadek eragiten dituzten berotegi efektuko gas isurketa masiboak azalera ateratu ditu Ukrainako gerrak. Gutxi arakutzen da gai honetan eta egiten denean kalkulu okerrekin josita aurkezten dira datuak. Egipton amaitu berri den COP27 larrialdi klimatikoaren gailurreko adituek mahai gainean jarri dute salaketa hori.

boran egiten diren ekintza militarrek mundu mailako isurketen %1etik %5era bitartean eragiten dute.

Konparazio gisa, %2 eragiten dute bai abiazioak eta bai itsas garraio zibilak.

Herrialde bat balitz, AEBetako Armadak, munduko indartsuen eta aurrekonturik handiena duenak, biztanle bakoitzeko isurketa handienak izango lituzke, hau da, 42 tona CO₂ soldadu edo Pentagonoko langile bakoitzeko, “Nature”-ko adi-

tuen lanak dioenez. US Air Forceko F-35 ehiza-hegazkin batek 100 itsas milia airean egiten dituen bakoitzean, Britainia Handian auto batek urte osoan adina CO₂ isurtzen du, iturri beraren arabera.

Gerrak aldaketa klimatikoan duen eragina aztertzen ari dira adituak Ukrainan, otsailaren 24an Errusiak herrialdea inbaditzeari eta erasotzeari ekin zionetik. Gerran dagoen herrialde batean egiten den horrelako lehen ikerketa da.

Ukrainako Armada
kontraerasoan Kharkiveko
eskualdean.
AFP



Lehortearen eragina Kenyako parke natural batean. Fredrik LERNERYD / AFP

ALDAKETA KLIMATIKOA ETA GERRAK

Hainbat ikerketaren arabera, egungo krisi klimatikoaren ondorioz gatazka militarrek areagotu egingo dira, batez ere Afrikan.

Klima ereduak aldatzen ari dira. Muturreko gertaera klimatikoaren maiztasuna eta intentsitatea handitzea errealitate bat da, eta hori, zoritxarrez, planetako eskualde ahulenetakoek pairatzen dute gehien.

Muturreko gertaera horiek afrikarrei eragiten dietenean, emaitza milioika desplazatu dira janari, ur edo beste premiaren baten bila, eta horrek gatazkak sustatzen ditu.

Valentziako Unibertsitate Politeknikoak eta CSICek elkarlanean egin duten ikerketa batek ondorioztatzen du klima aldaketak Afrikako gatazka armatuen maiztasuna eta iraupena handituko duela.

Ikerketa egiteko, zientzialari taldeak Afrikako kontinenteko 1990 eta 2016

bitarteko datuak erabili zituen. Batez besteko tenperaturak eta prezipitazioek luzaroan gora egiteak lau eta bost aldiz handitzen du gatazka izateko probabilitatea, batez ere 550 km-ko erradioan dauden herrietan. Lehorteek eta goseteek ere gatazka armatua sortzeko probabilitateak areagotzen dituzte, eta oso denbora laburrean.

Davide Consoli ikerketaren egileetako batek azaldu duenez, «emaitzek inplikazio handiak dituzte Afrikako kontinenteko lurralde politikan. Adibidez, klima egokitzapenerako politika berrien diseinuak kontuan hartu behar dituela lurralde bakoitzaren berezitasunak».

Horri guztiari gehitu behar zaio pertsonen mugimendua ez dela ona nazioarteko tentsioak arintzeko, batez ere migratzaileek baliabiderik ez badute. Eta ez dugu gutxietsi behar migrazio klimatikoaren boterea.



Handik bi hilabetera sortu zen Initiative on GHG Accounting of War erakundeak (gerran berotegi efektuko gasen isuriak zenbatzeko ekimena) datu zehatzak kaleratu ditu: errefuxiatuen ihesak 1,4 CO2 milioi tona, suteek 23,8 milioi tona, liskarrek 8,9 milioi. Horiei gehitu behar zaie suntsitu diren azpiegiturak konpontzeko beharrezkoak izango diren 48,7 milioi tona. Guztira 83 milioi tona. Konparazio gisa, Herbehereak bezalako herrialde baten isurketak, aldi berean, 100 milioi tonakoak dira.

Txosten horretan unibertsitateko eta sektore pribatuko adituek parte hartu dute, Ukrainako Ingurumen Ministerioarekin batera.

«Horrek begi bistan uzten du ez diogula jaramonik egin eragin horri munduan izan diren eta izaten ari diren beste gatazketan. Ez dugu inoiz horrelako xehetasunik izan Iraki eta Siriari buruz edo beste gerra batzuei buruz», adierazi du Tipping Point North South erakundeko Deborah Burtonek.

«Zergatik ez da inoiz horretaz ezer aipatzen Klima Aldaketari buruzko Gobernu Arteko Taldearen txostenetan? Zergatik emisio militarren inguruko isiltasuna NBERen klimari buruzko goi bileratan?, galdetzen dute “Nature”-ko artikuluaaren egileek. «Politikarengatik eta trebetasun faltagatik», erantzun dute.

Ukrainari buruzko ekimenak isiltasun hori behingoz amaitzea du helburu, Lennard de Klerk adituak dioenez.

Izan ere, isuri militarrek «ofizialki aitortu eta zehatz-mehatz zenbatu behar dira, eta jarduera militarrek deskarbonizatu egin behar dira». Egiptoko COP27an eskaera hori egin dute eta 2023an Dubain egingo denak «aldaketa hori egiteko aukera izan behar du».

Ondo dakite adituek gerran informazio militarrek sekretuak direla baina bigarren eskuako informazioak eskuratu daitezkeela gogorarazi dute.

Azken batean, isuri guztiak ahal den heinean zenbatzea ezinbestekoa da isuriak murrizteari ekiteko.



Goiko irudietan, Errusiako Armadak egindako erasoen eraginak ikus daitezke.

AFP



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Ez datorkigu fabrikatik

Motibazioa zerbait egiteko irrika da. Motibatuta egotea ez da bat-batean jokatze-
ra garamatzan egundoko inspirazio bat
sentitzea, zerbait egin nahi izatea bai-
zik. Horrela, besterik gabe. Motibazio mai-
la onena gure unean uneko trebetasuneta-
ra egokitzen dena da, eta, oro har, ondo sentitzen garen
tarteko eremua da. Aukera desberdinei aurre egiten diegu-
nean, bitarteko aukerara jotzen dugu: oso hotza, oso be-
roa, oso muturrekoa eta oso sorgorra ez den horretara.

Hala ere, asko kostatzen da egunero eta edozein egoera-
tan guztiz motibatuta sentitzea. Are gehiago, zaila zaigu
gure pentsamenduak eta emozioak kontrolatzea, helburu
bat lortzeko elkarrekin lan egin dezaten. Askotan, gure bu-
rua alde batetik doa eta emozioak bestetik. Beraz, motiba-
zioari pisu osoa ematen badiogu eta gure ekintzak mar-
txan jartzeko
abiapuntutzat hartzen ba-
dugu, ezinezkoa izango
zaigu emozio edo pentsa-
mendu desatseginak ekar-
tzen dizkiguten baina, aldi
berean, nahitaez aurrera
eraman beharrekoak diren
ekintzak burutzea.


Horrela, gure ekintzak
dira kontrola ditzakegu-
nak. Gure jokabideak alda
dezake gure aldartea. Une
bakoitzean nola sentitzen
garen kontuan hartu gabe,
aukeratzen duguna egiteak
helburu bat lortzen lagun-
duko digu. Ez zaigu gusta-
tzen deseroso sentitzea eta
helburu bat lortzeko aha-
legina egin behar izatea,
horrek, ia beti, era guztie-
tako “zamei” aurre egitea
eskatzen baitu (goiz esna-
tzea, aisialdiari uko egitea,
denbora asko inbertitzea
eta abar). Beraz, bizitzan
zehar, motibaziorik gabe
ekintza eta betebeharrak
egin beharko ditugu gu-
re helburuak lortzeko, oz-

topatzen gaituzten pentsamendu eta emozio desatsegi-
nekin batera. Hala ere, gure errutinekin zorrotzak izateak
ohitura osasungarriak garatzen jarraitzeko aukera ematen
digu. Adibidez, gogoratzea nahi eta amesten dugun hori
merezi dugula.

**Orduan, kontua ez ote da izango, motibaziorik eza bai-
no gehiago, ondoeza saihesteko motibazioa gailendu
egiten zaiola kostatzen zaigun baina epe luzera nahi
dugun hori lortzeko egin beharreko motibazioari?** Be-
raz, motibatuta ez gaudela esaten dugunean, benetan esan
nahi duguna da guretzat garrantzitsua den zerbait egin
nahi dugula, baina martxan jartzeko ez gaudela prest, zo-
riontsu, seguru, sinetsita eta energiaz beterik ez bagaude.
Horrela, nekatuta, ziurtasunik gabe, mesfidati edo alfer
gauden bitartean, nekez ekingo diogu zereginari. Hori bai,

ezin dugu ahaztu gure inst-
inturik oinarritzkoenetako
bat ondoeza saihesteko
nahia dela, eta, beraz, ezin
da joera hori ezabatu, bai-
na bai, haren ordean, gure
balioen arabera jokatu. Be-
raz, ez dugu motibatuta
egon behar, nahi duguna-
rekin konprometituta bai-
zik. Hau da, lehenik ekin-
tzak eta gero
sentimenduak. Gogoan ba-
tatean etorriko den ustea
baztertu eta jarrera kon-
prometitu hori lantzen
hastea besterik ez dago.

Motibazioak aktibatze-
ko arrazoiak behar ditu, eta
horrelako zerbait eskain-
tzen digu bizitza aktibo
batek, kontaktu sozialak,
harreman osasuntsuak...
Motibazioa ez datorkigu
fabrikatik, egunero aurki-
tu behar dugu jomugak
marratzuz, ingurukoez go-
zatuz eta itxaropena elika-
tuz. •



Motibazioak aktibatze-ko arrazoiak behar ditu. GAUR8

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Esku batekin arbasoek bidalitako idatzizko keinua

Bai, badakigu oraingo euskaldun batek eta Irulegiko eskuan hizki horiek grabatu ziten gizasemeak edo alabak nekez ulertuko luketela elkar. Inor ez da besterik pentsatzeko bezain lerdoa, eta ironiarako tarterik badago esan daiteke arrazoi nagusia ez dela linguistikoa, tenporala baizik: ezinezkoa baita biek topo egitea. Ea txorakeriak esateari uzten diogun behingoagatik. Sikiera duela bi mila urte baino gehiago Arangureneko bailaran bizi izan zen hark eskuekin –esku batekin, hobeto esan– keinuak eginez haien berri izateko aztarna utzi zuen.

Baina zergatik nabarmentzen dira hainbeste horrelakoak hain zuzen euskarari buruz aritzerakoan? Izan ere, beste horrenbeste esan daiteke beste edozein hizkuntzaz. Alegia, egungo hiztun batek, edozein dela bere hizkuntza, nekez ulertuko lituzkeela bere aurrekoak, ezingo lukeela hizkuntza horren jatorrizko bertsioa entenditu egungoarekin konparatuta izugarrizko aldeak duelako. Euskal Herrian izan ezik, inork ez du inon arreta kontu horretan jartzen.

Halere, euskararen kasuan zenbaitek ebidentzia hori titularretara eramateko beharra daukate, arrazoi politiko agerikoengatik, euskararen aztarnak eta euskarak bere lurraldean dituen sustraiak lausotuz edo gutxietsiz Euskal Herriaren existentzia eta haren gainean herri proiektu oso bat garatzeko zilegitasuna kolokan jarri nahi dutelako. Ukazioa da, hain zuzen ere, gai honi beste askori bezalaxe zentzu txarreko kutsu politikoa ematen diona. Espainolismoa da gaia «politizatzen» duena, eta espainolismoaren pipia forma ezberdinak hartzen ari da azkenaldian, betiere euskal abertzaletasuna eta euskal nazioaren eraikuntza kaltetzeko.

Ez dira egunok, alabaina, pipertuta ibiltzeko. Halakorik esatea oso originala ez bada ere, Irulegiko aurkikuntza zorionekoa izan da. Are gehiago, zinismoak, es-

nobismoak edo autogorritoak eragindako gehiegikeriek eta zapalkuntzaren aldekoen mezu erasokorrek sare sozialetan sortzen dituzten liskar eta ika-mikek besterik adierazten badute ere, albisteak oso harrera ona izan du herritarren artean. Batzuei irakurrita besterik pentsa badaiteke ere, jendea nahiko zentzuduna da. Ikasgaia beharko luke izan horrek ere azken boladan hautsak harrotzen dituzten zenbait polemikari aurre egiteko orduan, purrustadek eta zakarkeriak sortzen duten girotik ihes egiteko.

ZORIONEKOA AURKIKUNTZA

Bai, zorionekoa izan da aurkikuntza, lehenik eta behin zientziaren eta ezagutzaren aldetik, iraganaren ezagutzak etorkizunari aurre egiteko lanabesak eskaintzen

Arkeologiaren eta historiaren bidetik, kulturari eta hizkuntzari sekulako ekarpena egin eta egingo zaielako. Herria egiten delako

baititu. Arkeologiaren eta historiaren bidetik, kulturari eta hizkuntzari sekulako ekarpena egin eta egingo zaielako. Herria egiten delako.

Jakina, lehen-lehenik aztarnategian eta ondoren aurkitutako piezarekin egindako lan handia goraipatu behar da. Horrekin batera, gainera, aurkikuntzaren berri emateko moduetan ere bete-betean asmatu dela esan beharra dago. Hedabideekin egindako aurrelanketak, alde batetik, eta erakundeetatik izandako inplikazioak, bestetik, gertakariari behar bezalako garrantzia ematea ahalbide dute. Seguru asko, adibide bat jartzearen, beste garai batean edo bateko Nafarroako lehendakaria ez zen halako ekitaldi batean agertuko. Zorionekoa, beraz, egindako lan guztia, indusketa eta ikerketatik hasi eta aurkikuntzaren aurkezpena arte. •

MEMORIA SORTZEKO LEHEN TANTA: DEPORTATU ETA IHESLARIEN SEME-ALABEN KONTAKETA

Maddi Txintxurreta Agirregabiria

Ikusezinak eta ez ulertuak sentitu izan dira euskal iheslari eta deportatuen seme-alabak. Sekula ez da aditzera eman haien errealitatea, orain gutxi arte: Miren Azkaratek haien testigantza eta bizipenak jaso ditu azaroaren 3an argitara eman zuen «Ikusezinak. Erbesteratuen haurrak» liburuan. «Hasiera» bat da, errelatoa osoa izan dadin.

Eguna artean argitsu zela sartu ziren Donostiako Kursaal parean dagoen Naiz Gunera eta gauez aterako ziren bertatik, nahiz eta alderantzizko planak zituzten: ilunari argia ematea. Itsasoa bizi zegoen; berak, memoriak bezala, gauzak ekarri eta eramaten ditu eta ezinezkoa da itsaso bat lurrera iltzatzea bilatzen den hori busti gabe topatzeko, ez du balio: barrura sartu eta blaitu, ez dago beste biderik, memoria ariketa batean nola. Memoria, baina, sortu egin behar da. Tanta bat besteari lotu, putzu lohitsu batetik ur-lasterrak bizitu eta itsasora eman, murgildu nahi duenarentzat. Sarri, memoria eraikiko duen lehen tanta hori malko bat izaten da.

Dozenaka aulki ziren prest, denak ilaran eta txukun jarrita, hutsak, gelaren bazterreko lau salbu. Silueta beltzen seme-alabak omen hor –han– eserita, aurpegirik gabeko oinordekoak. Miren Azkarate Badiolak, Haitz eta Ihintza Aldana Petralandak eta Maialen Rodriguez Barcenak osatzen zuten Naiz Guneko ertz batean urduritasuna konpartitzeko eraikitako gorputzeko zirkulua. Aurpegia badute, kideza moduko zantzu batez destatzen baitzioten



begirada elkarri, begietatik begietara, eta egin zutelako irri eta negar.

TANTAK

Deportatu eta iheslarien seme-alabak dira eta kontakizun bat irungo duten egia berriak esatera etorri ziren Donostiara, nahiz eta ohituta dauden gezurretan aritzera, baina hori geroago esplikatu zuten. “Ikusezinak. Erbesteratuen haurrak” liburuaren aurkezpenerako ordubete falta zen. Miren Azkarate kazetariak idatzitako lan honek euskal deportatu eta iheslarien seme-alaben zortzi testigantza jaso ditu, «maletadun haurren» kontakizuna zabaltzea helburu. Lehenengoz jaso du donostiarrak haur ohi hauen ahotsa.

Ezagutzen dute elkar, baina aurkezpene txanda egin zuten. «Jaio nintzen egunetik iaz arte euskal iheslari politiko baten alaba naiz», hasi zen Miren Azka-

Ihintza Aldana, Haitz Aldana, Maialen Rodriguez eta Aitziber Zapirain goian, Miren Azkarate behean. Alboko orrialdean, Azkarateren lehen planoan. Berak osatu du liburua.

Andoni CANELLADA | FOKU

rate. Agustin Azkarate du aita eta bera jaio zenerako aitak urteak zeramatzan Ipar Euskal Herrian, aurretik espetxealdi bi igarota zituela. Alabak bi urte eta erdi zituela estraditatu zuten Agustin Azkarate Espainiara han urte eta erdiz kartzelaratzeko. Askatu zutenean Hego Amerikara egin zuen: urtebete egin zuen Mexikon eta 34 urte luze Kuban. Iaz, 2021ean, itzuli zen Euskal Herrira, bere alaba azaroaren 3an aurkeztu zen libururako testigantzak jasotzen ari zela.

Atzerrian eman zituen urte luzeetan soilik bost aldiz ikusi zuen aita Miren Azkaratek. Lehenengoz 6 urterekin, 14rekin gero, 16, 17 eta 28rekin azkenengoz, «nire espetxealdiaren ondoren», zehaztu zuen. Telefonoz hitz egiten zuten, ez asko, ordea, «garestia zen-eta».

Dena den, Azkaratek ez zuen moztu Ipar Euskal Herriarekin zuen harrema-

na aita handik mugitu zenean. Artean ez du eten. «Nire egoera berdina bizi zuten pertsonak niretzako familia izan dira eta haiek bisitatzen jarraitu dugu bizitza osoan. Zer diren gauzak, zenbait urte despistatuta egon ondoren, berriro elkartu gaitu proiektu honek», esan zuen zirkuluko kideei begirada konplize bat eskainiz.

Bikiak dira Haitz eta Ihintza Aldana, eta arreba zaharrago bat ere badute, Garazi. Ana Mari Petralanda dimarra eta Angel Aldana gorozikarraren seme-alabak dira. Ziburun sortu ziren eta han bizi dira egun ere. «Gure istorioa oso luzea da», ohartarazi zuen Ihintzak. 1981era egin zuen atzera, bera eta anaia jaio baino lehen. Gurasoak atxilo hartu zituzten orduan, ama hiru egunen buruan askatu zuten, baina aita Yeu irlan konfinatu zuten. Apurtu zen konfinamendua, baina Ziburun egin zuen bizitzak ez zuen asko iraun. 1985ean atxilotu zuten berriz, «ahizpa zaharrena besoetan zuela», kontatu zuen Ihintzak. Hilabete gutxiren buruan deportatu zuten.

«Santo Domingora (Dominikar Errepublikak) eraman zuten, gero Ekuadorrera, gero Panamara eta azken 20 urteak Venezuelan eman zituen. Gu sortu ginean Quiton zen», azaldu zuen Ihintzak. Garazi eta Ana Mariren bisita jaso zuen Angel Aldanak eta, hurrengo urtean, biki jaioberriena ere bai, Quiton. «Geroztik, bisitak urtero egiten genituen, uda garaiko oporretan, bi hilabetez», esan zuen Haitzek.

Venezuelako lehenengo urteetan bizitza nahiko normala egin zezakeen deportatuak –«‘normala’ kakotxen artean», zuzendu zuen Haitzek–. Atunketari batean egiten zuen lan. «Gerora, klandestinitatean bizitzen hasi zen eta jada ez genuen bisitarik egiten», zehaztu zuen Ihintzak. Latinoamerikako herrialde honetan eman zuen azken hamarkada klandestinitatean egon zen Angel Aldana, Espainiatik hiru estradizio eskaera zituela-eta, Polizia atzetik. «Sei urtez ez genuen aukerarik izan bisita egiteko», gogoratu zuen bere anaiak.

Gerora, berriz ere aita bisitatzeko aukera izan zutenean, Venezuelako ego-



naldiak ez ziren errazak izaten. Klandestinitateak ezkutatzea esan nahi du eta, beraz, etxetik atera gabe egoten zen familia, beste behin, gerizpean. Garazik ez zuen aukera askorik izan aitarengana joateko: espetxeratu egin zuten eta barruan zela esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten. «Horrek dena zaildu zuen», hartu zuten gogoan anai-arrebek.

2016an hil zen Angel Aldana eta bi alabek ezin izan zuten aita agurtu. Eritasunaren ondorioz Garazik eta haurdun zegoelako Ihintzak. Hilabete luzatu zen gorpua Euskal Herrira ekartzeko prozesua. «Beste identitate bat zuen eta horrek zaildu zuen gorpua ekartzea. Eskerrak han bazegoela laguntza eman zigun jendea», esplikatu zuen Haitzek.

Maletadun haurrak izan ziren Ihintza, Haitz eta Garazi. Haitzek laburtu zuen egoeraren gordintasuna: «Aita bat izan

dugu, baina ez dugu ezagutu». Onartu zuen sarritan ez zutela gogorik izaten aita ikusteko bidaia luzeak egiteko. «Azken finean, gaztea zarenean ez duzu gogorik ere ez... zergatik joan behar dugu? Ez genuen ulertzen. Zure lagunak oporretan daude, hondartzan, zuk lagunekin egon nahi duzu. Ikastolan esaten genuen aita bisitatzera joan behar genuela, eta ‘non dago zure aita?’ galde-tzen ziguten. Lagunei esplikatu beharra zaila da, zeren gazte zarenean oraindik dena ez dizute esan. Gaur egun badugu ezagutza pixka bat, baina...»

Maialen Rodriguezek bukatu zuen Haitzen esaldia: «Dena ez dakigu eta ez dugu jakingo».

Berak jarraitu zuen aurkezpen txandarekin: «Ni Maialen Rodriguez Barce-na naiz, Elena Barce-na eta Iñaki Rodriguezen alaba. Biak militanteak izan ziren gaztetatik eta elkarrekin ihes egin zuten egun batean Iparraldera. Han espetxeratu zituzten, Paue eta beste toki eder batzuetan izan ziren eta handik deportatu zituzten Cabo Verdera, beste paradisu batera. Hiltzera, alegia, zeren hor ez zegoen ezer. Hura ez zen gaur ezagutzen dugun Cabo Verde». Ironiaren babespean hitz egin zuen Rodriguezek, haserre zantzuek ere egiten zioten ihes tarteka. Azaldu zuen gurasoek lortu zutela Cabo Verdetik ihes egitea, eta handik Latinoamerikara joan zirela. «Txoko seguru bat» topatu zuten Kuban. Han sortu zen Maialen; «kubatarra naiz, beraz», esan zuen. Lehenengo 18 urteak Kuban eman zituen eta bera izan zen euskal errefuxiatuen artean jaio zen lehenengo haurra, 1989an. «Jaio nintzenetik denak saiatu ziren ni euskalduna izan nendin; ez zuten lortu, kubatarra naizelako», agertu zuen barrez.

Maletadun haurrak ez ezik, «aireportuko haurrak» ere izan zirela gaineratu zuen Maialen Rodriguezek. «Aireportuan ibiltzen ginen beti, eskailera mekanikoetan jolasean, gora eta behera, beti familiaren zain. Urtean behin, akaso, etortzen ziren, hegaldiak oso garestiak zirelako. Astean behin, akaso, jasotzen genituen deiak, hauek ere garestiak zirelako. Ezezagunen zain ere egoten ginen, ezezagun asko pasatzen zirelako

gure etxetik. Nik ez dakit nortzuk diren, baina maleta betea ekartzen zuten beti. Oso momentu zoriontsuak izaten ziren etxean. Orduan ikusten genituen gurasoak pozik», oroitu zuen emozionatuta.

Euskal Herrian bizi da egun, txikitatik entzun izan zuen amets hori –«itzuliko gara»– errealitate bihurtuz. Baina Maialen Rodriguez ez zen itzuli, etorri baizik. «Etorri nintzenean konturatu nintzen ez nengoela etxean, beraien etxean baizik. Zerotik hasi behar izan nuen», adierazi zuen.

TABUAREN ETA GEZURREN PUTZUA

Euskal presoaren egoeraren berri badu euskal jendarteak, motxiladun haurrena ere bai. Baina deportazioa, ihesa eta maletadun haurrak «garai luze batez bazter batera utziak izan dira». Haitz Aldanak esan zuen, baina guztiek egin zuten baietz buruarekin. «Horrek min egiten du –jarraitu zuen ziburutarrak–, zeren ez zara entzuna, ez zara ulertua».

Miren Azkaratek saltatu zuen elkarriketara. «Hortik liburuaren izenburua. Denok errepikatu dugun hitza da; nik neuk nire buruari mila bider, eta elkarriketak egitera joan nintzenean gehienek aipatutako hitza da: ikusezinak izan gara, ez gara existitu, inork ez du gutaz hitz egin. Eta esaten ez dena ez da existitzen. Silueta beltz bat izan dira gure gurasoak eta horrek eragin du gu geu ere, atzean geunden senideak, emaztea, lagunak... ez existitzea».

“Ikusezinak. Erbesteratuen haurrak” liburua «hasiera» bat izan daitekeela uste du Ihintza Aldanak, orain arte deportatu eta iheslarien seme-alabek ez dutelako «momenturik, espaziorik» izan beren egoeraz hitz egiteko. Gaia «tabua» dela azpimarratu zuen Azkaratek, hainbeste, ezen familiako anai-arreben artean ere ez baita honetaz hitz egin. «Ez dugu planeatu horrela izatea, baina ez da kasualitatea ez hitz egite hori. Ez da espaziorik eman gure bizipenak konpartitzeko. Ez naiz motxiladun haurren plataformarekin konparazioetan sartuko, hemen denok txalotzen dugu plataforma hori, baina hortik sortu zitzaidan maletadun haurren metafora erabiltzea. Beraiek badute espazio



Iheslari eta deportaturik gabeko Euskal Herria aldarrikatzeko agerraldia 2018an, Orion.
Gorka RUBIO | FOKU

Alboko orrialdean, liburuaren aurkezpeneko une bat.
Andoni CANELLADA | FOKU

bat konpartitzeko, gure kasuan ez da horrelako aukerarik egon, arrazoi desberdinak tarteko: gure gurasoen kolektiboa oso zaila izan da artikulatzeko eta berdin gertatzen da gurekin», adierazi zuen liburuaren egileak.

Ikusezinak izan diren gisan, isiltasunaren eta gezurren haur eta nerabeak izan dira guztiak. «Guk txikitatik eza gutzen dugu elkar, baina nola nik ezin nuen ezer esan eta banekien beraiek ere ezin zutela ezer esan, orduan ez genuen galdetzen», esan zuen Maialen Rodriguezek. Eta umoretik gaineratu zuen Ihintza Aldanak, zirkulua dardaraziz: «Hori da etxean izan dugun heziketa: etxean gertatzen dena etxean gelditzen da».

«Gezurren artean bizi ginen. Klandestinitatean bizi ginen. Nire gurasoak legalak ziren, baina gure arteko euskal komunitatea oso anitza zen eta baziren ilegalak ziren asko gure etxean bizi zirenak. Babestu behar genituen. Horregatik, oso zaila da haur bat hezte, bate-tik esanez, ‘ez esan gezurrik’ eta, aldi berean, ‘hau ezin da esan, hau ez duzu ikusi’. Kontraesan handiko haurtzaroa izan zen, eta nerabearora iritsi ginenean gezur handien bonba bat ginen. Gurasoak bezain bitxiak, estralurtarrak», kontatu zuen Maialen Rodriguezek.

NORMAL-NORMALA

Askatu zen elkarrizketa aurkezpenez harago. «Guretzako bizimodu normala zen, baina orain atzera begiratuta, normal-normala ez zela konturatzen gara», esan zuen Rodriguezek. «Funtsean, hori da zailena: normalizatu dugula egoera bat ez dena normala», gaineratu Ihintzak. «Nik haurtzaroan uste nuen bizitzen ari nintzen guztia normala zela, baina poliki-poliki konturatzen zara zure lagunaren gurasoak eta zureak erabat desberdinak direla. Zureak bitxiak direla. Kultura desberdin bat dutela eta beste herrialde batean bizi direla: bertan daude, baina burua beste nonbait daukate esnatzen direnetik lokartzen diren arte. Beti adi Euskal Herriko albisteei. Euskal Herrian bizi ziren oraindik. 1980ko hamarkadan izoztuta gelditu ziren erabat. Eta nik izoztuta zegoen Euskal Herri hori entzun nuen, idealizatutako hori. Beraz, etorri nintzenean deskubritu behar izan nuen beste Euskal Herri bat, eta haiei kontatu zer den Euskal Herria, ez baita beraiek oroitzapenetan zutena», kontatu zuen Elena Barcena eta Iñaki Rodriguezen alabak. Ez-normaltasun horretara «ohitu» ziren erbesteratuen seme-alabak. «Ohitzeko gaitasun handia izan dugu», esan zuen Rodriguezek.

«Nik haurtzaroan uste nuen bizitzen ari nintzen guztia normala zela, baina poliki-poliki konturatzen zara zure lagunaren gurasoak eta zureak erabat desberdinak direla. Zureak bitxiak direla»

ZULOA ETA SAREA

Donostiako Naiz Guneako atea ireki zen. Ordu erdi falta zen liburuaren aurkezpen ofizialerako. Sartu zen, isilik, Aitziber Zapirain, eta batu zen zirkulura gairontzekoen elkarriketa eten gabe. Berak ere aurkeztu zuen bere kasua. Xanti Zapirainen eta Pili Etxanizen alaba da. Ahizpa zaharrago bat du, Maider. 1987an Aitziber jaio zenean, ihes egin zuen aitak, atzetik zituelako Polizia frantsesa eta espainiarra. «1990era arte etxez etxe ibili zen. Boladaka, oso gutxitan etortzen zen etxera, eta etortzen bazen gau pare bat ematen zituen, beste norbaitek atea zabaltu arte», esplikatu zuen. Egoera zaildu egin zen GAlen garaian, errefuxiatuen kontrako sarekadak ugaritu zirenean, eta, beraz, atzera ere etxera egin zuen Xanti Zapirainek. Ez edozein modutara, ordea. Sukaldeko armairuan zulo moduko bat egin zuen amak eta han sartu senarra. «Laurak etxean bizi ginen, baina egin behar genuen aita ez balego bezala. Ezin genuen 'aita' esan etxe barruan, txistu egin behar genuen. Nik ez nekien egiten! [barre egin zuen zirkuluak] 'Fiu-fiu' egiten nuen. Behean Polizia baten ama bizi zen eta noiznahi Polizia deitzen zuen. Guk beti genuen etxea poliziaz josita, telefonoa pintxatuta. Edozein urrats ematen genuela atzetik genituen. Horregatik egin behar genuen aita ez balego bezala», kontatu zuen.

Xanti Zapirain goizeko bostetan jaikitzen zen ohetik egunero koltxoiari buelta emateko, Polizia sartuko bazen bere berotasunaren arrastorik ez topatzeko.

«Esan duten bezala, gezur handien artean bizi ginen. Errealitate bat genuen etxean, baina kalean aitaren berririk ezin genuen eman. Inork galdetuz gero, beti esaten genuen 'aita ez dago'. Gogor an dut Hendaiako Ikastolan lehenengo egunetan, galdetzen zizutenean gurasoek zertan egiten zuen lan, nik, adibidez, kamioilaria esaten nuen», gogoratu zuen Aitziber Zapirainek.

Xanti Zapirainek bazuen sare bat bere zaintzarako. Etxekoez aparte, amona, aitona, arreba. «Eta bizpahiru familia hozkailua betetzeko, guretzako

Xanti Zapirain goizeko bostetan jaikitzen zen ohetik egunero koltxoiari buelta emateko, Polizia sartuko bazen bere berotasunaren arrastorik ez topatzeko. «Ezin genuen 'aita' esan etxe barruan, txistu egin behar genuen»

arropak emateko, txutxeak... amak ez zuelako lan baimenik. Aita ez zen existitzen eta amak lanerako baimenik ez... bada, ez zegoen diru sarrerarik etxean. Amaren bizitza baldintzatuta zegoen guztiz aitaren errealitatean. Hiru hilabete behin Baionako Suprefeturara joan behar zen eta galdeketa egiten zioten. Ez zegoela, hori zen erantzuna», azaldu zuen.

Gezurren eta ezjakintasunaren artean bizi zen Aitziber Zapirain ere. Bere esanetan, irakasle baten bidez ulertu zuen aita errefuxiatua zela. Oroitu zuen topaketa batzuk antolatu zirela Donostian, eta Ziburuko kolegioko irakasle batek esan ziola berak ezin zuela joan. «Baina, zergatik?», Zapirainek. «Ni errefuxiatua naiz». Orduan piztu zitzaion argia: «A! Orduan nire aita ere errefuxiatua da!»

Xanti Zapirain ekainean hil zen, demetziak jota. Familiaren ustez, etxean pasatutako hamar urteek eragina izan zuten. «Erresonantzia bat egin zioten burua galtzen hasi bezain laster eta leherketa txiki pila bat zituen buruan, hematoma, hemorragiak... bost urtetan guztiz beheratu eta joan zen».

«Beti pentsatu izan dugu haurtzaro zoriontsua izan genuela eta errepikatu beharko bagenu berdin egingo genuela. Baina, orain ama naizela, ez dut hori nahi nire umeentzat», ondorioztatu zuen Aitziber Zapirainek.

Miren Azkaratek, Haitz eta Ihintza Andanak, Maialen Rodriguezek eta Aitziber Zapirainek nabarmendu zuten badela gogo eta behar bat haien minnez eta bizimoduez mintzatzeko, baina ez dela erraza. «Mugitzen» duela nork bere barrenera egindako bidaiak, liburuan jasotzen diren kontakizunak «barru-barrutik» askatutakoak baitira. Mugitzen duen horrek kontakizuna eta memoria mugiaraziko duelakoa, «Ikusezinak. Erbestertuen haurrak» eman dute protagonistek, murgildu nahi duenarentzat.





Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:





PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

Lau urtaro, zortzi telesail

NEGUA

Telesailek izan behar dituzten osagarri nagusiak: Eguraldi txarra nagusitu behar da, hotza eta elurra ahal bada, eta batez ere, sofa eta manta konbinazioa bueltan datorrela kontuan izanik eta etxeko goxotasunaz profitu nahi dugula, narratiboki thrillerrera, suspensera edo poliziakora gerturatzen den zer-bait izan behar da.

The North Water

MOVISTAR

Maite ditut era honetako proposamenak, estetikoki eta narratiboki muturrera eramaten dituztenak alegia, baina kontziente naiz horrelako produktuk kontsumitzen ohituak ez daudenentzat bortitz samarra izan daitekeen telesaila dela. Bai estetikoki eta bai tramari dagokionez, iluntasuna eta zikintasuna une oro jariatzen duen telesaila. Plano bakoitzarekin zakarkeria eta kiratsa darien antzinako telesail ingeles horietako baten aurrean zaude.

XIX. mendean girotua, Patrick Sumner (Jack O'Connell) armadako zirujau ohia da protagonistetako bat, itsasontziko mediku bezala izena ematen duena Artikorako baleontzi espedizio batean. Mediku gogoetatsu eta lasai honen aurrean Henry Drax (Colin Farrell) topatuko dugu, bigarren protagonista. Basakeria eta zentzurik gabeko indarkeria etengabe erabiltzen dituen arpoilaria, hiltzaile basati bat. Ekoizpenaren estetika ilun horrekin guztiz bat datozen pertsonaia. Itsasontzi horren zeharkaldia aitzakiatzat hartuz, bi pertsonaia kontrajar-

iragan astean Euskadi Irratiko «Baipasa» saioan izan genuen hizketaldia: urtaro jakin batek telesail mota bat ikustea iradokitzen digun ala ez aritu ginen. Uda erdian baldin bagaude adibidez, eta eguzkia eta beroa nagusitzen badira eta gainera oporretan bagaude, pantaila txikian ere klimatologikoki antzekotasunak izatea eskertzen dugula aipatu genuen, eta gaiari dagokionez paralelismoak izan ditzala. Edo udazkena iristearekin batera basoetan girotzen diren proposamenak, maitasun kontuak edo unibertsitateetako istorioak ikustea atsegin dugula. Hori horrela denik oso argi izan gabe ere –batzuetan kontrakoa maite dudalako, beroak jota nagoenean, pantailan elurra ikusteko gogoia dudalako adibidez– urtaro bakoitzera-ko bi proposamen egitea pentsatu dut. Ondoren norberak erabaki dezala noiz ikusi, baina balio beza zerrenda honek behintzat gida moduan.



tzen ditu telesailak: naturaren indar menderaezina, arrazoia- ren eta zibilizazioaren aurrean.

Bron/Broen

AMAZON

Suedia eta Danimarka lotzen dituen Oresund zubian hasten da istorioa –lehen denboraldia–. Zubiaren erdi-erdian hildako bat agertzen da: gorpuaren erdia Danimarkan, beste erdia Suedian. Hala, bi aldeetako poliziak elkarlanean aritu beharko dira. Eta hortxe azaleratuko dira bi herrialdeen arteko desadostasun eta gaizki-ulertuak, saguaren eta katuaren arteko jolas makabroa loratuz.

Oso interesgarria egin zait ezagutzen ez nituen bi herrialdeen arteko desberdintasun kultural eta politikoa pantailan ikustea. Bi hizkuntzatan filmaturik egoteak kontraste hori modu sotilean azpimarratzen du, eta ironiari ere tarte ematen dio. Telesailaren oinarri sendotako bat bi protagonistak dira –hurrengo denboraldietan berriak egongo diren arren–; ezin desberdinagoak, baina era berean bateragarriak. Martin polizia danimarkarra da, seme-alaba ugari dituen familiako aita, zintzoa eta, batez ere, egoeraren arabera azeleragailua ala balazta zapaldu dakiena. Saga Noren polizia suediarra, aldiz, emakume bakarti eta bitxia da, Asperger sindromearen eraginez besteekin erlazionatzeko arazo larriak dituena eta lanarekin erabat itsututa bizi dena.

Telesailak hasieratik jolasten du pertsonaien garapenarekin, arazo pertsonalak gainditzea eta kasuak aurrera egitea uztar-

tuz. Hala, ikusleak memento oro bi detektibeen ikuspegitik bizitzen du kasua, ikerketaren partaide zuzen bilakatuz. Bi protagonistek tandem perfektu-inperfektua osatzen dute.

Bestalde, genero beltzaren DNaren parte den gizarte kritika bortitza ere egiten du, idealismo politikoak saihestuta. Ongizate estatuaren adibidetzat ditugun herrialde nordiko horietan ere desberdintasunak eta arazoak daudela azaleratzen du. Gakoa da mezu hori tramaren barnean modu zitalean barneratuta dagoela. Eta, noski, musika eta argazkia baztertu gabe, gaiari itsatsirik doakion beharrezko estetika ilun eta astuna ezin egokiagoa da. “Bron/Broen” bikaina da, biribila.

UDABERRIA

Telesailek izan behar dituzten osagarri nagusiak: Klimak garrantzi handia ez izan arren, naturak edo kanpoko kokalekuek presentzia nabarmena izan behar dute; mendia, loreak, neguaren ostean hondartza lehen aldiz zapaltzen dugunaldi hori eta abar. Istoriei dagokienez, komedia erromantikoak, maitasun kontuak eta zergatik ez, umore beltz apur bat badago askoz hobeto.

Bad Sisters

APPLE TV+

“Big Little Lies” telesailaren erako istorioak atsegin badituzu eta umore beltza gustuko baduzu adi proposamen honi. Belgikako “Clan” telesailaren moldaketa da. “Bad Sisters” telesailak bost ahizpa aurkezten dizkigu.

Bibi, Becka, Eva eta Ursula, Grace-rengatik oso kezkatuak daude, bere senar misogino, nartzista eta ia psikopataren erruz triste eta burumakur bizi den sentsazioa baitute. Soluzio gisa, Hitchcock-en filmetako elementuak dituen plana presta-tzea erabakiko dute.


Elkarri lotuak dauden bi den-bora tartetan kontatuta, batean zuzenean senarrarekin zer ger-tatu den erakusten digu, beste-ak plan hori nola bururatu eta gauzatzen duten. Telesailaren oinarri nagusia, elkarrizketa ga-rratz eta tramaren garapen oso entretenigarriaz gain, aktoreen lana da, zalantza izpirik gabe. Horien artean Sharon Horgan-en izena topatzea –“Catastrophe” telesailaren gidoilari eta protagonista, besteak beste– argudio garrantzitsua izan da ni-retzat, eta ez dit hutsik egin. Iluna zein dibertigarria, azidoa zein gozoa, makabroa zein atse-gina, eta batez ere entreteniga-rria oso.

Normal People

STARZ

Udazkenean ikusteko ere oso aproposa iruditzen zaidan arren, azken unean udaberrian sartu dut. Sally Rooneyren ele-berriaren moldaketa, “The New York Times” egunkarian *mil-lennial*-en garaiko idazle handi be-zala definitu dutena. 2008ko fi-nantza krisiaren ondorengo Irlandako herrixka batean giro-tua, Marianne (Daisy Edgar-Jones) eta Connell (Paul Mescal) dira kontakizun erromantiko-dramatiko honen protagonista nagusiak.

Coming-of-age generoa ar-datz hartuz, sentikortasun han-diz zuzenduriko 30 minutuko 12 atal topatuko dituzu. Hasiera-tik emozionalki sartzeari lortzen baduzu, Marianne eta Con-nellen arteko maitasun istorio ko-rapilatsuaren parte sentituko zara. Bi protagonisten arteko ki-mika gutxi ez eta, ekoizpenaren



Urtaroz urtaro proposatzen diren telesailen argazkiak: lehen orrian «The North Water» eta «Bron/Broen»; orri honetan «Bad Sisters», «Normal People» eta «The White Lotus»; eta hirugarren orrian «The Boys», «Mare of Easttown» eta «The Underground Railroad».

gainerako alorrak ere azken zi-rrikituraino zainduak daude. Pertsonaien arteko igurtzi ba-koitza, begirada bakoitza, topa-keta bakoitza, behar bezala des-fokuratutako lehen planoek indartzen dute, adibidez. Ederra bezain frustragarria den konta-kizun hau ikusleari helarazteko, zinema komertzialaren eta in-dependentearen arteko oreka perfektua ere lortu dute.

UDA

Telesailek izan behar dituzten osagarri nagusiak: Oporretan ikusten ditugun proposamenak direla kontuan izanik, minisai-

lek arrakasta handiagoa izaten dute garai honetan. Umoreak ere presentzia izan behar du, baina muinean baita gizarte kri-tikak ere. Ikuserraza, pertsonaia xelebrez osatua eta ukitu gan-berroa izan dezala.

The White Lotus I eta II

HBOMAX

Zuzenean udarekin lotzen du-dan telesaila. Inortxok ere ez –ezta HBOk berak ere– espe-ro ez zuen telesail arrakasta-tsua, eta bigarren denboraldia estreinatu berri duena gainera. Iraun zuen sei asteetan sare so-zialak ekoizpen honi buruzko txio, aipamen eta memez josi ziren, bertan azaltzen diren per-tsonaiak ia ikono bilakatu arte.

“Succession” zoragarriarekin gertatzen den moduan, pertso-naia jasanezinak eta gorrotaga-rriak, baina era berean maitaga-rriak, umore beltzak gainezka egiten duen gidoi biribila eta el-karrizketa ironiko eta zorrotzez hornituriko trama oso entrete-nigarria. Astebetez, luxuzko re-sort tropikal batean erlaxatzeko intentzior ari diren pertsona aberats jakin batzuen oporrak erretratatzeko dituen telesaila da. Atalak igaro ahala ordea, guztia korapilatzen eta iluntzen joango da azken traka apoteosi-ko batera iritsi arte.

Osagarri horiekin guztiekin, modu satirikoan jorratzen ditu gizarte klaseen arteko desber-dintasunak eta horren erruz izaten dituzten identitate kri-siak. Bigarren denboraldia Sizi-lian girotzen da eta lehen den-boraldi paregabe horren segida paregabea iruditzen zait. Ikusi. Ez zara damutuko.

The Boys

AMAZON

Zeinen ongi pasatzen dudan te-lesail hau ikusten; gozamen hu-tsa iruditzen zait, ganberroa,

entretienigarria eta basatia, superheroiaren munduko satira gupidagabe eta zorrotza. Superheroiak ospearean eraginpean jarrera zalantzarriak hartzen dituzten mundu batean girotua dago, beren burua ustelkeria bidean jarri eta oraindik eta ospetsuago bilakatzeko helburuz gizateria arriskuan jarriko dute.

Baina umore beltz eta entretenimendu horren muinean gainera, idoloak behar dituen gizarte bati buruzko etsipenezko begirada ikaragarria ere eskaintzen du. Ikuspegi ezkor eta amoral horretan datza “The Boys”-en indarra, nire ustez; Marvel eta DC faktoriekin erraz identifika daitezkeen superheroiak, hezur-haragizko pertsonen antagonista bihurtzen dituen, ustelkerian oinarritutako *statu quo* horri mozorroa kentzeko borrokan ari diren benetako heroiak. Proposamen ezin hobea iruditzen zait superheroiaren generoa gorroto dutenentzat, beren jarrera berresten lagunduko dielako.

UDAZKENA

Telesailek izan behar dituzten osagarri nagusiak: Hasi gara apurka etxean denbora gehiago geratzen, eta proposamen luzeagoak ikusteko gogoz gabilta. Kolore marroi edo grisekin lotzen dugun estetikak gailendu behar du, hasieratik harrapatuko gaituen trama eta pertsonaiek garrantzi berezia izan behar dute; herrixka txiki batean bizi badira eta bertako klimak eragina badu haiengan, askoz hobeto. Kontakizun historiko kutsua dutenak ere gogotsu ikusten ditugu urtaro honetan.

Mare of Easttown

HBOMAX

Telesaila premisa nahiko simple eta konbentzional batetik abiatzen da, Pennsylvaniako Easttown izeneko herri txiki batean Erin McMamin gaztearen

gorpua agertzen da. Nork hil du? Zergatik? Mare Sheehan (Kate Winslet) polizia bertaratu da gertatutakoa argitzeko. Ama helduak, ama oso gazteak, ama

bakartiak, sufritzen duten amak dira Easttown herri endogamikoan gertatzen den polizia drama indartsu honen protagonistak, eta Mare poliziaren



paperean Kate Winslet, sekulako erakustaldia eskaintzen.

Telesail honek bere tonuagatik, protagonistagatik eta uste-kabeko umore distirak oparitzen dizkigulako “Happy Valley” gogoratzen du hasiera batean. Baina atalak igaro ahala “Broadchurch”, “True Detective”, “Sharp Objects” edo zergatik ez “Twin Peaks”-en zantzuak ere antzeman ditut.

Kate Winsleten lana eta bere pertsonaia aipatzeko idatzi propioa sortuko nuke. Ordu luzez hitz egin nezake hemen eskaintzen duen lana goraiatzeko. Azken hamarkadetako aktorerik onenetakoak pisu handia du telesaillean. Langile klasekoa da, Estatu Batuetako herri txiki galdu bateko polizia. Bere semearen suizidioak, familia kargek eta oraindik gaintu ez duen dibortzioak zauritu dute. Motxila zamatsu horrekin, herriko neska gazteen bahiketa eta hil-keta batzuei aurre egin beharko die. Harribitxia.

The Underground Railroad

AMAZON

Telesail bat amaitu ostean, bertako irudi, hitz, isilune zein soi-

nuek hitzik gabe uzten nautenean, eta barrenak zeharo nahasiak, zeinen zaila den sentsazioen zurrumbilo hori hizkien bidez helaraztea. Hori da “The Underground Railroad” telesail gordinarekin gertatu zaidana. Zur eta lur utzi nau, emozional-ki nokeatuta.

“Moonlight” filmarengatik Oscar saria irabazi zuen Barry Jenkins-ek zuzendu duen telesaila da honakoa. Colson Whitehead-en izen bereko liburuaren egokitzaipena (Pulitzer saria 2017an), XIX. mendearen lehen erdian esklabo beltzei Iparraldeko estatuetara, Kanadara eta beste eskualde batzuetara ihes egiten laguntzen zien sare klandestino baten inguruko kontakizun gordina da.

Kasu honetan Cora da protagonista, Georgiako plantazio bateko esklaboa, sare klandestino hori erabiliz ihesean doan neska gaztea. Istorioa bakarra izanik eta kronologikoki azaldu arren, hamar atalak oso desberdinak direla ohartuko zara, bai bisualki bai narratiboki. Lerro narratibo argi bat baino gehiago, sentsazio multzo bat erabiltzen du istorioa kontatzeko.

Patxadaz ikusteko telesaila da, ez atalak bata bestearen jarraian irenstekoa, eta hori noizean behin eskertzen dudan zerbait da. Ikuslearen inplikazio dosi altua eskatzen du. Telesail errealista bezain gordin baten aurrean zaude. Bisualki izugarria eta erabaki narratibo oso arriskutsuak zein ausartak dituen, non irudimenak hartzen duen ia aginte osoa.

Irudimen horri lotua, bertute nabarmenetako bat telesailaren faktura tekniko izugarria da. Barry Jenkinsek telesail gutxitan ikusitako birtuosismo ariketa bikaina egitea lortu du. Hasteko, argazkiak kalitate benetan piktorikoa du, ia hipnotizatzailea, planoen konposizioak muturreraino aztertuak daudela nabari da, eta kamera, leuntasun eta trebetasun ikaragarri mugitzen da une oro.



Ana Elozegi Serna

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Hurrengo batean ikusiko dugu elkar zoriontasunaren iraultzan

2016ko martxoan hasi nintzen GAUR8 aldizkariako hilabetearen behin idazten, eskaini zidatelako eta gustatzen zaidalako hainbat gairen inguruan solastatzea eta hausnartzea. Gaurko honetan agurra idazteratzen, sei urtez idazten egon ondoren atsedenaldi baten beharra sentitzen dudalako, eten bat egin eta freskaldi bat hartzeko beharra.

2016ko martxoko lehen iritzi artikuluan nire aitari idatzi nion eskerrak ematen, eta harrezkeroztik gai mordoz eta nire bizitzan garrantzitsuak izan diren pertsonen eta pertsonen idatzi dut zuzenean edo zeharka. Baita ere nire ikaskuntzan eta bide pertsonalean garrantzitsuak izan diren gaiez ere: harremanak, dolua, sexualitatea, inbidiak, maskulinitatea eta feminismoa, abusu sexualak, suizidioa, nerabeak...

Gaurkoan, ibilbide txiki hau amaitu nahi nuke nire amari eskerrik beroenak ematen, bere pozaldi eta ezintasunetan bere modura presente egon zelako, eta senari kasu egiten bere ondoan ikasi nuelako. Izan ere, denboraren poderioz ohartu naiz uste nuena baino askoz gehiago ikasi nuela bere alboan, bere altzoan... Memento txarrenetan ere saiatu zelako guk ezereen falta ez izaten, bere modura maitasunaren hazia landatu zuelako.

Bizitza eman zidalako, eta esentzia. Eta Ama guztion lehengaia izanik, ezin agurtu bera aipatu gabe eta eskertu gabe. Ni ez nintzatekeelako bera gabe.

Bestetik, aipatu nahiko nuke gaur egun bizitzen ari gareen angustia eta beldurraren garaia. Gaur egungo kazetaritzaren mezuaren aldaketa beharra, covid-19 garaia ikaragarria izan

zen eta hain gertu izanik ematen du ahaztu dugula... Ordutik aurrera, sententzioa daukat ez ote duen guztiz indarra hartu angustia eta beldurraren mezuak, jendartea paralizatuz eta depresio orokorrean sartuz.

Albisteak entzun besterik ez daude: Ukrainako gerra, argindarraren prezioaren igoera, krisi ekonomikoa, gaixotasunak, eguraldia bera ere gaixotu dugu... Kontsultan jendea beldurturik eta angustiatuta ikusten ari gara, entzuten duten guztia katastrofikoa delako, eguna eta oraina zoriontasunean ezin bizirik...

Zoriontasunaren iraultza egin beharko genuke, hausnartu zertan ari gareen eta zer lortu nahi dugun al-

biste hauek guztiak behin eta berri etengabe gure jendarteari eskaintzen. Zoriontasunaren iraultza egin beharko genuke, kazetaritza esparru berri bat osasuntsua, alaia... eguneroko bizitzan mila gauza, ekitaldi, ekimen eta egitasmo sortzen direlako osasunaren inguruan, bizipozaren alde, elkar zaintzaren alde, autogestio emozionalaren alde...

Gizarte bezala gaixotzen ari gara, angustiak eta beldurrak gain hartuta.

Zoriontasunaren iraultza egin beharko genuke lehenbailehen, irribarrera eta zoriona, elkar zainketa eta norbere zainketa landuz, tribuari indarra emanez eta natura errespetatuz... Zoriontasunaren iraultzan elkartuko gara! •



Zoriontasunaren iraultza egin beharko genuke.

Idoia ZABALETA | FOKU

{ koaderno } Xabier Izaga Gonzalez

Iraganaren eskua, ahantzuratik askatua

Mattin Aiestaran, Irulegiko aztarnategiko zuzendaria irudikatu dut, hara itzultzerakoan, Aranzadiko boluntario tropa adoretzen, Napoleonen antzera: «Hogeita bi mende dituzue Irulegi menditik beha». Tira, ez da horrenbeste, Madrilgo Komunitateko presidente andreak oraindik orain aipatu duen «mila mendeko espainierazko kulturaren herentziaren» aldean. Zerbait apalagoa da, baina badu bere garrantzia, diotenez.

Adituek esan dute Irulegiko eskuko testua idatzita dagoen alfabetoa iberiarrenaren moldaketa dela, zeltiberiarrena bezala, baina haren desberdina, ezaugarri propioak baititu.

Ez ditut hizpidera ekarriko sare sozialetan irakurri ditudan memelokeriak, baina bai adituen hitz argien interpretazio bitxiren bat. Asteartean irakurri nuen euskararen jatorriaren eta erromanizazioaren aurreko «gainerako» hizkuntza iberiarren arteko ahaidetzari buruzko eztabaida berria zabaldu duela aurkikuntzak. Zertaz ari dira, penintsulako beste hizkuntzez edo iberieraren familiako beste hizkuntzez? Izan ere, bide batez, Pirinioez bestaldean ere badira iberieraren arrasto idatziak.

Gaur egungo euskara alfabeto latinoan idazten da, gaztelania, frantsesa, katalana eta beste hainbat hizkuntza bezala; edo serbokroaziera bezala, alfabeto zirilikoan ez ezik latinoan ere idatzi arren hizkuntza latindarra ez dena. Edo bai? Baskonikoa ez da iberiera, gaur arteko ikerketen arabera, ez nik diodalako. Harekin harremana izan zuela? Baliteke. Baina ondorio horretara iristeko ez zegoen inongo eskuren beharrik.

Aurkikuntzak aurreko uste bat berretsitu du, baskoiek beren hizkuntzan idatzi zutela, hain zuzen. Alfabetuak zirela, beraz. Eta, are gehiago, beren hizkuntzan

idazteko sistema propio bat bazutela. Oraintsu arte hizkuntza horretan zenbait txanponetan idatzitako izenen baten berri baino ez zegoen.

Batzuk, zer egingo diogu, bada, penatuta bezala agertu dira asteen, beharbada Irulegiko eskuan ez delako *ñ*-rik agertu. Bai, ordea, *T* itxurako hizki bat, iberiarren eta zeltiberiarren signarioetan ez dagoena (orain ardi latxaren orde, edo haren ondoan, horixe jarri beharko dugu autoan ikur).

Azken albiste bat. Euskara nafarren hizkuntza da, Irulegiko eskuaren agurra baino lehenagotik ere bai. Euskaraz hitz egiten duten nafar ugari ezagutzen dut nik. Beran eta Tuteran, Izaban eta Vianan. Baita euskaraz ikasteko oztopo asko ere, Aranguren eta are gehiago handik behera.

Hamaikagarrenez, Aranzadi Elkarteko jendeak iraganari eskua luzatu dio eta iraganak eskuzabal eskaini dio berea. Beti eta beti lurrean uxarka, belaunak urratuta, gure iragana arakatzen

Gure etxeko atean esku bat zegoen, ahurrean helduta bola bat zeukan burdinazko eskua, atea jotzeko. Aldaba, jakina. Oraindik ere ikusgai daude aldabak ate zaharretan. Nafarroaren erdian, Arangurengo Irulegi mendian, Kristo aurreko I. mendeko etxe baten orubean aurkitu berri duten brontzezko eskuak ez du balio atea jotzeko, nonbait ere etxera sartzen zirenei ongietorria egiteko baizik. Hamaikagarrenez, Aranzadiko jendeak iraganari eskua luzatu dio eta iraganak eskuzabal eskaini dio berea. Beti eta beti lurrean uxarka, belaunak urratuta, gure iragana arakatzen. Errotarri bat (edo hogeita hamar) hor, gorpu bat (edo dozena erdi bat) han, ahanzturatik askatuta. •

«Euskaraldia landatzeko unea da, gero inteligenteak izan behar dugu uzta jasotzeko»

Hizkuntza asertibitateaz gero eta gehiago mintzatzen garen arren, psikolinguistikan ez daramagu hamarkada bat baino aunitzez gehiago. Ferran Suay eta Gemma Sanginesen lana abiapuntu izan zen.

Nola lotu zenituzten psikologia eta hizkuntza?

Bizitzako momentu batean erabaki nuen nire eguneroko hizkuntza katalana izango zela. Bikotekidea, Ferran Suay, Valentziakoa da eta katalan hiztuna. Valentziara etorri ginenean, konturatu ginen fenomeno paranormalak gertatzen zirela: nirekin katalanez aritzea eta katalanen artean gaztelaniaz, eta jakitean ez nintzela hemengoa hizkuntza aldatzea nahiz eta nik katalanez hitz egin. 'Por respeto'. Biok gara psikologoak eta ohartu ginen asertibitatean treba gintezkeela.

Proiektu pilotu bat hasi zenuen, unibertsitatean.

Tailer bat egin genuen, eta oso ondo atera zen, hiztunen sentipenak oso antzekoak ziren. Batetik, azalpen psikologikoa eman genuen eta horrekin bakarrik konturatu ginen motxila arintzen zela; gero metodologia proposatu genuen: 'role playing', egoera ezberdinak azaltzeko, bizitzeko eta aldatzeko. Hortik hainbat artikulu eta liburu idatzi genuen. Datorren urtean 20 urte beteko dira ordutik. 2006an hasi ginen Euskal Herrian. Lasarte-Orian eman genuen lehen tailerra.

Nola egokitu zenuten TELP («taller d'espai lingüístic personal») tailerra gurera?

Ez zen beharrezkoa izan egokitzea. Euskaldunok okerrago sentitzen gara distantzia lingüistikoagatik, baina pentsamendu eta emozioak Europa-ko beste hiztun gutxituenak bezalakoak dira, baita falaziak ere. Gaelikoekin edo bretoiekin konparatzen ahal dugu gure burua.

Ez gara hain bereziak orduan.

Eta berezia sentitu nahi duenarentzat berri txarra da hori.

Milaka lagun pasatu dira TELP tailerretatik Euskal Herrian. Zu ere tailerrei esker euskaldundu zinen.

Bilbon jaio nintzen duela 52 urte. Beti izan dut euskararekiko maitasun handia, baina nire ingurutik oso urrun zegoen. Sentitzen nuen, nahiz eta hizkuntza maite, ezin nuela euskalduna edo Euskal Herriko biztanlea izan euskararik gabe. 17 urterekin euskaltegi batean hasi nintzen, AEKn, jo eta ke aritu nintzen hiru urtez baina gero Salamancara ikastera joan nintzen. Han ez neukan ha-

GEMMA SANGINES SAIZ

HIZKUNTZA AHALDUNTZE TAILERREN SORTZAILEA

Euskaraldia aukera paregabea dela uste du adituak asertiboak izanez noraino irits gaitezkeen deskubritzeko. Gakoa izanen da hori ohiturak aldatzeko.

Maider Iantzi Goienetxe





Eider SUAY i SANGINÉS

rremanik euskaldunekin baina uste dut gramatika apur bat geratu zitzaidala. Valentziara etorri nintzenean eta Euskal Herrian lanean hasi ginenean kontraesan handia zen honetaz gaztelaniaz hitz egitea, eta gogor saiatuta, aurrerapen handia egin nuen. Beste motibazioa haurdun geratu eta alabak euskaldunak izango zirela erabakitzea izan zen. Polita izan da, batzuetan gogorra. Oso argi nuen helburua: oso sentitzea, euskaldun eta pertsona bezala.

Lorpen handia da alabak euskaldunak izatea.

Alabek nirekin beti katalanez egiten zuten, eta nik euskaraz

IBILBIDEA 1970ean

jaio zen Bilbon eta Valentzian bizi da. Castelloko hizkuntz eskolan dabil euskara irakasle. Kirol psikologian eta psikologia klinikoa espezializatu zen eta psikologia eta hizkuntza uztartuz, TELP tailerrak sortu zituen Ferran Suay bikotekidearekin batera. «Sortir De L'Armari Lingüístic» lan arrakastatsua argitaratu zuten biek 2010ean. Eta hura moldatuz, «Irten hizkuntzaren armairutik» plazaratu zuen Emun kooperatibak 2015ean.



egiten nien. Oso txarto zeudenean bakarrik egiten zidaten euskaraz, momentu hunkigarrietan, Euskal Herrira joaten ginenean, edo zerbait pribatua esan behar zidatenean. Gure kode sekretua zen. Hizkuntzak, filosofiaz aparte, tresna bat dira, komunikatzeko eta ez komunikatzeko, eta umeek ez diote kode moral edo filosofiko hori jartzen, praktikoa soilik. Haiengandik ikasi beharko genuke, batzuetan nahasten gara eta. Eurek argi daukate. Orain nerabeak dira alabak. Egunerokotasunean moldatzen dira, baina sentimendu edo pentsamendu konplexuak adierazteko ni garai batean bezala sentitzen dira, murriz. Frustrazio txiki hori izan arren, argi dute nirekin euskaraz egin nahi dutela.

Nola ikusten duzu Valentziatik Euskaraldia?

Barrutik ikusten dut Euskaraldia, bertan lanean aritu naizelako. Ideia nagusia zoragarria da, esportatzekoa: aurrean daukazu pertsona bakoitza arnagune bihurtzea. Harreman edo solasaldi bakoitzean erdaraz edo euskaraz egin erabaki behar dugunean estres linguistikoa sentitzen dugu, eta kanpainan barne eztabaida hori murrizten saiatu gara instrukzio berri batekin: gure buuruari esango diogu aurrekoak komunikatzeko arazoak izan arte beti aurrera egingo dugula euskararekin.

Ez dakit nola jasoko duen gizarteak instrukzioa baina horrela egiten bada euskararen presentzia oso-oso handia izango da. Pentsa dezakegu 15 egunetan ez direla gauzak konponduko, bereziki urtean murrizketak badaude eta administrazioen aldetik erantzun erakargarri edo erabilgarri ez badago, osasun eta

justiziako euskara eskaeretan adibidez. Ahultasun handiena horixe da, nire ustez. Nahiz eta Euskaraldia bultzada sozialetik jaio, administrazioen aldetik oso babestua dago, eta hor kontraesan bat ikusten da. Mezu positibora noa orain: uste dut aukera paregabea dela asertiboak izanez noraino irits gaitezkeen deskubritzeko, noraino jarrai dezakegun euskaraz aldatu gabe eta komunikatzeko arazorik gabe. Beste arazoak beste arazoak dira. Euskaldunak deskubrituko ditugu inguruan, eta oso garrantzitsua da hori Euskaraldia bukatzean ohiturak aldatzeko.

Zer da estres linguistikoa?

Oreka apurtzen denean ematen den erantzuna da estresa. Komunikatzeko naturaltasuna galtzen dugu hiztun gutxi tuok, inguruko presioagatik eta hizkuntza indartsu bat dugulako ondoan. Sentitzen dugu gure gainean dagoela komunikazioaren ardura eta baita bestearen ongizatearena ere.

Solasaldi guztietan erabaki beharrak gure barne oreka apurtzen du. Teknikoki egoera etsigarria da, bi aukerak direlako txarrak. Erdaraz hitz egiten badugu, besteak nahi duena egiten dugu, autoestimua kaltetzen dugu, eta kontzientzia linguistikoa baldin badugu, gure ideologiaren arabera gure hizkuntzari edo herriari traizio egiten diogula sentitzen dugu. Euskarari eusten badiogu, presioa eta neke handia sentitzen dugu, agian bestearen erantzun txarra ere jas dezakegu. Eta gaia aldatzea ere pasatzen da: 'Baina euskaraz? noiztik?'

Zer aholku emanen zenizkiguke hizkuntza sumisio hori gainditzeko?

Hiru ataletan esku hartzen dugu: kognitiboan, psikologikoan eta motorrean, alegia, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'sentitu, pentsatu eta ekin' horretan. Alde kognitiboan, aurreiritziak dektatu eta desmuntatzen ditugu, psikologikoan emozioak eta arnasketaren kontrola lantzen ditugu, eta komunikazioan, ahazkoan eta ez-ahazkoan, gure hizkuntza maneiitzen saiatzen gara, gorputzaren hizkuntza, eta honako instrukzio zuzena ematen dugu: hasi euskaraz eta ikusi zer gertatzen den, baliteke keinu gehiago egitea, altuago mintzatzea, errepikatzea. Besteari galdeztzen ahal diogu ea ondo ulertzen duen.

Aurreiritzi bat da euskaraz egitea heziketa txarrekoa dela pentsatzea. Badira gehiago ere: euskararekiko gaitasuna dikotomikoa dela, badakizu edo ez dakizu. Baina hainbat modu daude: mantso mintzatzea, euskaraz agurtzea. Gure tailerretan asko azpimarratzen dugu progresibitatea. Sarri gertatzen da familia, lagun edo lankideen artean, badakite euskaraz, edo zerbait badakite, baina ez dugu aurrerapenik planteatzen. Kirolean bezala, agian ez zara gai maratoni bat egiteko baina gogoia baduzu minutu bat ibili eta beste minutu bat korrika egin dezakezu. Helburua osasuna bada berdin dio bata edo bestea, dikotomiatik ihes eginez aurrerapausoak eman ditzakegu eta aurrerapen bakoitzean gure burua indartu: 'Ondo noa'.

Asertibitatea lotsaren eta agresibitatearen erdian kokatzen duzu, eta euskal hiztunak hagitz lotsatiak garela diozu.

'Erretako' hiztunak izan gaitzek beste muturrera pasatu-

takoan, eta hori ere ez da eredu erakargarria. ‘Ikusten nola den arazo bat? Ez dut arazorik nahi, erdaraz egingo dugu’.

«Hiztunek erdarara jotzeko arrazoi garrantzitsuena euskararen ghattizazioa da gaur egun», zenioen «Argia»-rekin izandako elkarrizketa batean, 2013an. Esaldi hori sinatuko zenuke orain ere?

Azken urteetan ez dut hainbeste aukera izan inguru euskaldunetan egoteko. Inguru batzuetan oso normalizatua ikusten dut euskara, garai hartako umeak heldu bihurtu dira egoera normalagoan, ideologikoki ez dute erosi heziketaren diskurtso hori. Orokorrean askeagoa da gizartea aurreiritzi aldetik eta bada itxaropena gazteen artean. Garai hartako nerabe pila batek ez dute lortu euskaldunak izateko gaitasuna, ikastetxeetan gero eta gehiago erabiltzen delako gaztelania, eta eremu pribatua edo herrikoa ez bada euskalduna ez dute hainbeste aukera izan euskara jatorra izateko, baina hori beste arazo bat da. Horrexegatik, oso ideia ona da, hainbat elkartek eta pertsonak bultzatuta egiten ari diren bezala, aisialdia euskaraz egitea. Administrazioak euskarazko aisialdia babestu behar du.

Norbaitek erraten badigu ez zaiola gustatzen euskaraz egitea, gure hizkuntza aldatzen dugu. Arroparekin ez genuke eginen.

Automatismo bihurtu da: kaleratzen garenean oso normal ikusten dugu, eta hiztunok eredu gara, egiten duguna kopiatzen dute besteek, ez bakarrik umeek. Ohiturak aldatzea lortzeko, konturatzea da lehen urratsa, eta horretarako arreta behar da. Euskaral-



diaren egunotan hori da puntu nagusia.

Aldatzea baino zailagoa da irautea. Zeintzuk dira horretarako gakoak?

Euskaraldiko partaideen artean badira oso serio hartzen dutenak, benetako aldaketak egin nahi dituztenak, eta badira hain kontziente ez direnak. Mezua jende kontzienteari zuzenduko nioke, bizitzaren hobekuntza nahi duten horiei, inteligenteei: esango nieke, behin esfortzua eginda, Euskaraldia amaitu eta gero emaitza jasotzeko unea dela. Euskaraldia landatzeko momentua da

«Gure buruari esango diogu aurrekoak komunikatzeko arazoak izan arte beti aurrera egingo dugula euskararekin. Horrela egiten bada, euskararen presentzia oso handia izango da»

eta gero inteligenteak izan behar dugu uztia jasotzeko. Esango nieke ohiturak ez direla 15 egunetan aldatzen, agian hiruzpalau hilabetetan sortuko direla aldaketak.

Agian gure helburuak zehaztu behar ditugu, ez dugu pentsatu behar magikoa izango dela, %100 euskaraz biziko garela, benetako egoera ez delako normala: bizi garen lekuetan bizi gara, baina bide handia egin dezakegu. Gure buruari esan diezaiokegu euskaldun garen bitartean eredu ona garela beste euskaldunentzat, gizarte euskaldunean eragin hedakorra etorriko dela

eta horrela egingo dugula Euskal Herri euskalduna.

Pentsa daiteke diskurtso baikorregia dela baina dauzkagun tresnak hauexek dira, euskaldunok ahalik eta gehien izatea eta solasaldietan lasai itxaroten geratzea kristalezko bola ateratzen gabe. Gero ikusiko dugu nola konponduko garen; ez aurreratzea da inportanteena.

Nola ikusten duzu katalana Valentzian?

Euskara irakaslea naiz, publiko berezia dut, hizkuntza eskolako ikaslerik onenak eta lankiderik motibatuenak ditut. Valentzian katalana oso bizirik dago eta praktikan jartzen baduzu %100 katalanez bizi zaitetzke. Ni hala bizi naiz eta ez da arazorik niretzat. Medikua-renera joatean ere ez. Polizia-rekin hitz egiten dudanean ere ez. Kasu zehatz batzuk gertatzen dira. Orain dela aste batzuk salaketa jarri zioten paziente bati medikuari katalanez hitz egiteagatik. Horren kontra borrokatu bai, baina ezin dugu energia guztia horretan jarri, aurrera joan behar dugu mediku gehienek ez dutelako hori egiten. Hizkuntzen arteko hurbiltasunak gaitasunean laguntzen du, baina Euskal Herrian ere, adin tarte batean, aitzakia txarra da ‘ez dizut ulertzen’.

[Gemma Sanginesek ez du amaitu nahi Ipar Euskal Herria aipatu gabe]: Tailerrak eman ditut bertan eta etsipena sentitzen dute, ahaztuak sentitzen dira. Horregatik, ‘Irteten hizkuntzaren armairutik’ itzuli genuenean, beste kapitulu bat gehitu nuen, Ipar Euskal Herrikoa. Arreta handiagoa jarri behar diegu, bakardadea sentitzen dutelako eta egoera larriagoa dutelako, Araban eta Nafarroa hegoaldean bezala.



IKUSEZINAK ERBESTERATUEN HAURRAK

Miren Azkarateren liburua

**GURASOEN EXILIOAN EDO
DEPORTAZIOAN JAIO, HAZI
EDO BIZI IZAN ZIREN HAUR
ETA GAZTEEN IKUSPEGITIK
IDATZITAKO LIBURUA.
KRONIKETAN INOIZ AGERTU EZ
DIREN «MALETADUN HAUR ETA
NERABEAK». IKUSEZINAK ZIREN.
MIREN AZKARATEK LEHEN ALDIZ
JASO DU BERAIEK AHOTSA.**

*«Beti alde egiteko prest, beti beldurrarekin,
bera eta senide guztiak. Egoeraz eta etxean bizi
zuten guztiaz oso kontziente ziren bi txikiak
ere; bazekiten etxean bizi zutena kalean ezin
zutela azaldu. Kalean eta etxetik kanpoko
jendearen aurrean alegiazko beste bizitza bat
azaltzen zuten, eta bizitza horretan aita ez
zegoen etxean. Oso ondo genekien gezur horri
eutsi behar geniola eta oso ondo egiten genuen
gezurretan».*

**Euskal iheslari eta
deportatuen seme-
alaben kontakizunak.**

**Venezuela, Mexiko,
Iparralde, Kuba, Suitza,
Cabo Verde...**

**Ikusezin izateari utzi
nahi dioten bizipenak.**

**GARArekin
asteburu
honetan,
kioskoetan**

**17
euro***

GARA

* Erreserba ezazu
zure kioskoan

HEZIKETA DIGITALA

«Natibo digitala» izateak ez du nahitaez trebetasun digitalik ekartzen

JENDARTEA / GAUR8

Baliabide digitalen erabilera hain orokortua dagoen garaioan, garrantzitsua da jendarteak ingurune digitalean mugitzeko duen gaitasuna eza-gutzea eta alfabetatze mediati-ko eta digitala sustatzea, bereziki formakuntzan dauden sektoreetan, gazteria kasu.

Kataluniako Unibertsitate Irekiko (UOC) ikertzaileek egin berri duten ikerketan gazteen gainean jarri dute fokua. Aipatutako testuinguru mediatiko berrian, gazteetan alfabetatze digitalaren mailak eta genero arrakalak harremanik ba ote duten aztertu dute. «Lan horri esker, ikuspegi feminista eta kritikoa duten heziketa mediatiko eta digi-taleko etorkizuneko programen diseinuan sor daitezkeen tentsioak eta beharrak azter ditzakegu», nabarmendu du ikertzaile taldeak.

Hamasei eta hemezortzi urte bitarteko 600 neska-mutili egin diete galdeketa, ingurune digitalari buruz dituzten gaitasunei eta ezagutza kritikoei buruz. Inkestan hainbat gaitasun jasotzen dira, hala nola gaitasun teknikoak eta informazio gaitasunak (kontsumitzen diren edukien ebaluazioari eta online soziabilitateari buruzkoak). Hori guztia, ingurune digitalaren kontzientzia kritikoa ahalbidetzen duten hainbat alderdi kontuan hartuta, hala nola eragin ekonomikoari eta legez-kotasunari, politikari, ekologiari, lan merkatuari eta abarri buruzko ezagutzak.

Galdeketa onorioak bi multzotan banatu dituzte: batetik, informazio gaitasunei, gaitasun teknikoei eta ezagutza kritikoei buruzkoak; bes-

Ingurune digitala azkar zabaldu da bizitzaren alderdi guztietan, aisialditik hezkuntza eta lan esparruraino. Ondorioz, ikasketa azkarra eta azalekoa izan da kasu askotan. Egungo gazteek «natibo digitaltzat» dute beren burua, baina horrek ez du esan nahi derrigor trebetasun digitalak dituztenik. Genero ikuspegia barnebiltzen duen heziketa digitalaren beharra mahai gainean dago.



tetik, berdintasunarekin eta genero arrakalarekin zerikusia duten alderdiak.

Ikerketak ondorioztatu duenez, «oro har, gaitasunei buruzko eremuetan, mutilek zein neskek antzera baloratzen dute beren burua. Hala ere, xehetasunez begiratuta, informazio gaitasunetan, hala nola trebetasun sozialetan, emaitzak apur bat hobeak dira nesketan». Aldiz, ezagutza kritikoei dagokienez, emaitzek adierazten dute mutilek neskek baino hobeto baloratzen dutela beren burua, alde nabarmenarekin.

Adibidez, nortasun digitalaren profilak ondo erabiltzen dituztela diote nesken %71k, eta mutilen %66k. Bestalde, %25ek soilik adierazi dute badakitela gailuak mantentzen edo konpontzen, baina alde handia dago mutiletatik (%32,6) nesketara (%18).

Gainera, neskek mutilek baino informazio eta gizarte gaitasun gehiago dituzte ingurune digitalean; mutilek, berriz, neskek baino ezagutza kritiko gehiago dituztela uste dute.

«Datu horiek adierazten dute historiaren eta kulturaren ikuspegitik, teknologia, kon-

Egungo ekosistema digitalean beharrezkoa da haur eta gazteei heziketa digitala eskaintzea herritar kritikoa izan daitezen. GAUR8

tzeptu eta eraikuntza sozial gisa, maskulinitatearekin estuki lotuta dagoela eta generoen arteko botere desberdintasune-tan eta, beraz, logika patriarka-laren erreprodukzioan funtsezko rola duela», nabarmendu dute ikerketan.

Gazteen zati handi batek bere burua «natibo digitaltzat» dauka, baina definizio horrek ez du esan nahi derrigor trebetasun digitalak dituztenik. Are gehiago, ikerketak mahai gainean jarri du %30ek baino gehiagok hainbat disfuntzio dituztela, bai gaitasun tekniko-ei dagokienez, bai informazio-aren arlokoei dagokienez. Zerbitzu digitalen eta tresnen konfigurazioan badira hobetzeko alderdiak; pribatutasuna eta lineako anonimotasuna handitzeko orduan, adibidez.

«Egungo ekosistema digi-talean, hezitzaileen eta gazteen arteko elkarlanik gabe, eskuratutako gaitasun bakarrak plataforma digitalean kontsumitza- eta ekoiztera bideratuta daude. Beharrezkoa da, beraz, espazio hezigarriak irekitzea beraiei lagundu ahal izateko, ingurune digitalaren gaine-ko ikuspegi kritikoa sustatuz eta natibo digitalak direla eta berez ikasiko dutela dioen ideia desmitifikatuz».

Ildo horretan, heziketa digi-talaren proposamenak ikuspegi kritikoa izan behar du nahitaez, lan merkatuaren beharretara egokitzen diren enplegatuen prestakuntzara ez ezik, herritartasun aktibo, parte-hartzaile eta kritikoa osatzera ere bidera dadin.

Genero ikuspuntua txertatzea ere beharrezkotzat jo da. «Garrantzitsua da heziketa digi-talaren oinarrietako bat generoak teknologiarekin duen harremana aztertu duten femi-nismoak izatea».

Ikusgarritasunerantz elkarrekin

Miren Azkarate
Badiola

Amonarekin etxean bizitzeak atsotitz, esamolde, abesti eta abar asko ezagutzea ekarri zidan. Horien artean, beti esaten zuen lasai hil zitekeela bat zuhaitz bat landatu, haurra izan eta liburu bat idaztean.

Tira, bada, ni aurreko astetik aurrera jada hil naiteke lasai, hiru gauza horiek egin baititut honezkero. Baina oraintxe oso gaizki datorkit eta amonak oraindik itxaron beharko dit dagoen tokian.

Berak urteak beteko lituzkeen egun berean aurkeztu nuen “Ikusezinak. Er-

besteratuen haurrak” liburua Donostian, bere etxetik metro gutxira. Nire bizitzan oso garrantzitsua izan den eta den jendea bertaratu zen, giro goxo eta intimoan. Hunkigarria.

2019. urte bukaeran hasi genuen proiektua da, bihotzetik kontatutako istorioak dira eta era berean gure herriaren historia zatiak.

Euskal iheslari eta deportatuen seme-alaben testigantzak osatu ditugu bertan eta ohartu naiz barruan nuen arantza hori ez nuela nik bakarrik, guztiek partekatzen genuela eta hori beza-la beste hamaika bizipen ere bai.

Lagin txiki bat besterik ez da azaltzen, zoritxarrez ehunka izan baikara “maletadun haur” horiek, baina gustatuko litzaidake modu batera edo bestera haiek ere parte sentitzea. Nik sinatzen dudan arren, liburu kolektiboa baita, ahots askoz osatua.

Lehen aldiz hitz egiten ari da gutaz, ikusezinak izateari utzi diogu pixka bat bada ere. Orain, jarrai dezagun gure herriko errelatoaosatzen elkarrekin eta iluntasunetik argitara ateratzen herri honek pairatu duena. Esaten ez dena ez omen da izaten eta inork ez du gugatik kontatuko. •

Hezkuntza legeaz, adibide pertsonaletik

Asier Aiestaran

Azken hilabeteotan EAEko Hezkuntza lege berriaren inguruko eztabaida interes eta kezka handiz jarraitzen ari naiz. Interes handiz, gai oso garrantzitsu baten inguruan ikuspegi desberdinak kontrajartzeko balio duelako eta argumentu oso baliagarriak azaleratzen ari direlako; kezka handiz, asko estimatzen dudan nire inguruko jendearen artean arrakalak sortu daitezkeela edo zeudenak areagotu daitezkeela ikusten dudalako.

Zehazki, publikazioaren aldeko ahotsen eta Ikastolen Elkartearen eredia defendatzen dutenen arteko talkak kezkatzen nau batez ere. Nire ikuspegitik bi proiektuek dituzte indargune handiak eta eztabaida bere aldera eramateko pisuzko argumentuak, baina era berean bi aldeek dituzte iskin egin eta ezkutatzea nahiago duten ahulguneak.

Indarguneak sarri aipatzen dituzte proiektu bakoitzeko ordezkariak. Eskola publikoaren kasuan doakotasuna eta maila ekonomiko desberdinetako ikasleen bilgune izatea lirateke nabarmenak; ikastolen kasuan hamarkada luzez euskararen alde egindako lana edo ikuspegi nazionalaren aldeko apustua leudeke. Esan gabe doa, eztabaida gehiengotik bezala, norberaren indarguneak bestearen ahulgune direla hemen ere.

Horregatik, eta egoera ikusita, asko gustatu zait EH Bilduk egunotan plazaratu duen gogoeta, liskarrak alde batera utzi eta ahal den heinean lankidetzaz bultzatuz, azpimarra etengabe desberdintasunetan egin beharrean.

Eta biluzten hasita, jar dezadan nire kasu pertsonala adibide moduan, askotan kasu indibidual konkretu batek lelo orokor ponpoxo batek baino gehiago

balio duelako. Ikastolako ikaslea izan nintzen ni, nire gurasoek ikastolen proiektuan sinesten zutelako bere sorreratik. Halaxe erakutsi zidaten niri ere eta argi daukat euskara eta Euskal Herriaren ikuspegi nazionala ezinbestekoak direla nire semeen hezkuntzan. Era berean, nire bikotea irakaslea da eskola publikoan eta edozein forotan sutsuki defendatuko ditut, adibidez, doako hezkuntza publikoak gizarte kohesioaren ikuspuntutik dituen onurak.

Gure kasuan, zirt edo zart egiteko orduan, semeak ikastolara eraman ditugu azkenean, ez zalantzarik gabe. Baina erabakia bat ala bestea izan, aldatzen ez dena euskararen eta Euskal Herriaren aldeko jarrera da. Eta horretan batera baldin bagaude, ziur denok amesten dugun etorkizuneko hezkuntza sistema hori gero eta gertuago egongo dela. •



Ane Elordi, 31 urtekoa, Zornotzakoa: AEKren Korrikaren antolakuntzak grina handiko emakume gazte honen aurpegia izango du datozen urteetan. Erreleboa hartu du Asier Amondoren eskutik, zortzi urtez lasterketaren arduradun nagusia izan denaren eskutik. Erronka izango da AEKn 2015. urtean irakasle lanean hasi zen Elordirentzat. Orain aurrerapauso handi bat eman beharko du eta azken egunotan jada guttiz lanpeturik ibili da, baina GAUR8rekin egoteko tartea aurkitu du.

Euskal munduan behintzat «trending topic» bilakatu zara azken asteotan, badakizu?
Bai, badakit. Inoiz baino elkarriketa gehiago egin ditut, baina ez dago arazorik. Nire auzoan ere are famatuagoa bihurtu naiz. Aurreko asteburuan konturatu nintzen, kalean hainbatek zoriondu nindutela.

ANE ELORDI

KORRIKAREN ARDURADUN BERRIA

Zornotzako 31 urteko emakume hau da Korrikaren arduradun berria: «Albistea entzun nuenean, lehen erreakzioa bertigoaren antzerakoa izan zen».

Alessandro Ruta

«2030ean euskara gehiago erabiltzea espero dut, ez ikastea soilik titulua lortzeko»

Zorionak nire partez ere, irakasle ohia zaren neurrian. Barkatu hedabidearen erabilera pribatuagatik! Gure euskaltegira, Otxandiora, beste Korrika baten gatik heldu zinen. Gure orduko irakaslea 20. edizioa prestatzen ari zen, Otxandiotik atera zena, eta zu bere orde epe laburrez egon zinen...
Bai. Bost urte pasatu dira eta begiratu non gauden.

Zu, batez ere! Norbaitek, txorritxo batek, AEKtik xuxurlatu zidan: «Ane fitxaketa oso oso ona da Korrikarako». Erantzungo diozu zerbait? Nor izan da?

Iturriak ezin dira aipatu, barkatu. Tira, erantzun mese dez...
Mila esker, baina oraindik goizegi da horri erantzuteko. Egingo dudan lanak erabakiko du fitxaketa ona izan naizen...

Anekdotak bat: gogoratzen dut azken Korrika bukatu eta gero zu furgoneta baten ondoan zeundela, negar batean. Oker ez banago, elkar besarkatu genuen han, Donostian. Zer sentitzen zenuen momentu hartan?
Niretzat Korrika ekitaldi hunkigarria da. Egia esan, negarrez, edo hunkitzen, dagoeneko egun hartako goizean hasi nintzen, Donostiara sartzen, 10 gau eta 11 egun pasatuta, hainbeste arazo konponduta... esperientzia oso potentia izan zen. Beraz, negarrez baina era berean pozik nengoen. Kontraste hori ahaztezina izango da, betirako.

Koordinatzailea izan aurretik, zer egin duzu Korrikaren lantaldean?



Gidaria izan naiz eta prentsa-
rekin lotura.

**Korrikaren munduan, zer
gustatzen zaizu gehien?**

Betiko moduan erantzungo di-
zut: jendearen partaidetza, le-
kukoa hartzea eta abar hor
daude, noski, baina Korrika
ere bada inor ez dagoen lekue-
tatik pasatzea, goizaldeak Ara-
ban edo Nafarroan, paisaia pa-
regabearekin... Une horietan
ere Korrika oso era berezian
bizitzen da.

**Zein da Korrikarekin lotuta
duzun lehenengo oroimena?**

Hemen Zornotzan lekukoaren
zain nengoela, juxtu orain lan

egiten dudana euskaltegiaren
parean. Orain dela 15 edo 17 ur-
te izango zen, ez nago ziur. Ta-
berna baten barruan geunden,
hotza egiten zuen, eta gero
kanpora, Korrikara...

**Noiz jakin zenuen Korrika-
ren arduraduna izango zine-
la?**

Uztailaren 1ean. Albisteoa pasa
den astean bihurtu zen ofizia-
la, baina gure artean jakina
zen.

Nolakoa zara lanean?

Jende askok aipatzen du «ale-
maniarra» naizela. Dena kon-
trolpean egotea behar duten
horietakoa.

IBILBIDEA Ane
Elordi Zornotzan jaio zen
1991n. Kazetaritzan
lizentziaduna da eta
2015etik dabil AEKn.
Irakasle izateaz gain,
barnetegietan,
Bernalagun proiektuan
eta komunikazio lanetan
ere aritu izan da. Korrikari
dagokionez, komunikazio
lantaldean aritu zen
azken ekitaldian, eta
aurrekoan gidari lanetan.

**Zuk ikastaroak ematen segi-
tuko duzu euskaltegian, jaki-
na.**

Denboraldi honetan bai. Bi
ikasle autoikaskuntzan dauz-
kat, Arratiako berbalagun eta
dinamizatzailea... 2023ko
udazkena heltzen denean, or-
duan Korrikaren antolakun-
tza buru-belarri arituko naiz.
Egia esan, dagoeneko hasi ga-
ra, talde askoren atzean egon
behar da, batzorde asko dago...

**Esperientzia berri honek bizi-
tza aldatuko dizula uste du-
zu?**

Begira, Asier Amondok errele-
boa eman zidanean kontatu
zidan karguan izan den zortzi

urte hauetan bere bizitzako
momenturik onenak izan di-
tuela. Baina tira, albisteoa eman
zidanenean...

Alai? Urduri?

Ez bata ez bestea, egia esan. Le-
hen erreakzioa bertigoaren an-
tzerakoa izan zen, nik barrutik
ezagutzen dudalako Korrika,
badakit nolakoa den, benetako
puzzle bat. Baina Spidermanek
aipatzen duen bezala, botere
handiak edukitzeak ardura as-
ko esan nahi du.

**Deskonektatzera, noiz eta no-
la?**

Betikoa, mendira joango naiz,
sarri bakarrik. Eta yoga, agian
saio gehiago egingo ditut.

**Noiz arte izango zara Korri-
karen arduradun?**

Lau ediziotarako konpromisoa
hartu dut, beti egiten den be-
zala.

**Euskarari begira jarrita, zer
egoera espero duzu, behin es-
perientzia hau bukatutako-
an? 2030. urtean alegia.**

Alde batetik pozik nago, gaur
egun atzeritar asko etortzen
direlako gure hizkuntza ikas-
tera. Baina gero eta jende
gehiagok egiten du bakarrik ti-
tulu bat lortzeko. Eta euskara
ez da soilik hori, baizik eta gi-
zartean erabili behar den tres-
na. Bada, hori espero dut: zor-
tzi urte barru gizartean
gehiago erabiltzea.

Hitzordua, orduan, 2024an?

Bai, 2024ko martxoaren 14tik
24ra; Gipuzkoatik beste nora-
bait.

**Eta ezin didazu gehiago au-
rreratu?**

Ez, ez. Gainera, bideari dago-
kionez ez du asko erabakitzen
arduradunak.





Naiara Aginako Bengoa

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea, UPV/EHU

Nola zehazten dute intsektu hegalariek grabitate?

Ezaguna da, gizakietan, belarria entzumenaren organoa izateaz gain orekaren organoa ere badela. Barne-belarrarian ditugun barrunbeek gure kokapenari buruzko informazioa ematen dute grabitatearen indarra kontuan izanda. Posizioaren informazioaz gain, belarri barruan dauden begizta formako kanaletan dauden likido eta ile itxurako sentsore finei esker burua zein norabidetan mugitzen dugun jakin dezakegu. Sentsore hauek dira, askotan, oreka galdu edo zorabio sentsazioa izatearen errudunak.

Gizakiak bezala, gaur egun merkatuan dauden tripulatu gabeko aireontzi edo droneek, badituzte beren orientazioa eta mugimendua identifikatzeko sentsoreak: giroskopio eta azelerometroak, hain zuzen ere. Sentsore hauei esker drone baten hegaldia kontrolpean mantentzea lortzen da. Grabitatearen indarra nondik datorren jakinda, orekan mantentzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzen ditu droneak. Helburuetako bat hegaldia ahalik eta era egonkorrenean egitea da.

Orduan, intsektu hegalariek ere antzeko sentsoreak erabiltzen dituzte beren posizioa ezagutzeko?

Zertan oinarritzen dira beren hegaldia kontrolatzeko? Nola dakite gora edo behera mugitzen diren? Animalia hauen zentzumen organo batzuk hegaldia egonkortzeko duten funtzioa finkatu izan da, baina oraindik ez dago argi grabitatearen norabidearen estimazioarekiko duten mendekotasuna. Gainera, intsektu hauen hegaldiak behatzean, argi ikusten da oszilazio txikiak egiten dituztela egonkortasun hori lortzeko.

Hori guztia kontuan izanda, Europako herrialde desberdinetako ikerketa talde batek erlasterrek grabitatearen norabidea estimatzeko fluxu optikoan oinarritutako metodo bat erabil dezaketela erakutsi du. Funtsean, fluxu optikoa munduan zehar mugitzen garen bitartean jasaten dugun itxurazko mugimendu bisuala da. Adibide gisa, trenetan edo autotan eserita goazenean, urruneko objektuak, mendi edo hodeiak, geldirik daudela dirudi; gertuagoko objektuak, berriz, zuhaitzak edo eraikinak, atzerantz mugitzen ari direla iruditzen zaigu.

Grabitatearen norabidea estimatzeko, fluxu optikoz gain, intsektu hegalariek beren mugimenduaren auresatea erabiltzen dute.

Hau da, alde batetik, sentsoreek bere ingurune mugimenduak optikoki detektatu dutena eta, bestetik, mugimenduaren auresatearen eredu bateratuz lortzen dute grabitatearen zentzua. Bi informazio iturri horien bateraketa prozesuaren ondorio bezala agertuko litzateke intsektuen hegaldi oszilakorra. Teoria honek oraindik erronka handi bat uzten du zabalik: intsektu hegalaria hauek beren mugimendu eredu nola sortzen duten.

Hori horrela izanik, droneetan ez litzateke beharrezkoa izango azelerometroak erabiltzea hegaldiaren oreka mantentzeko; nahikoa izango litzateke fluxu optikoaren eta mugimenduaren auresatea. Modu horretan posible izango litzateke drone txikiagoak sortu eta maneiatzea. Akaso, drone txikiak eta intsektu hegalaria elkarrekin biziko dira etorkizun ez oso urrun batean. Ideia horrek, noski, beste eztabaida bat ekarriko luke. •



Erle bat, loretik nektarra ateratzen. Juan Carlos RUBIO | FOKU

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA




IÑAKI ANASAGASTI FUNTSA

ERBESTERATUTAKO EUSKAL HERRITARRAK CALAISKO PASABIDEAN

1936ko gerraren ondorioetako bat milaka euskaldun erbestera irtetea izan zen. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Laguntza Sailak aterpe batzuk antolatu zituen Estatu frantseseko hainbat herritan, baina ehunka errefuxiatu eraman zituzten Gurs eta Argeles-sur-Mer bezalako barneratze esparruetara.

Irudian euskal erbesteratuen talde bat agertzen da, gehienak emakumeak eta haurrak, Berck herrian (Pas-de-Calais), 1939ko irailean Mundu Gerra deklaratu zenean. Oro har, inguru horretako errefuxiatuei harrera ona egin zitzaion, I. Mundu Gerran gertatu zenaren oroitzapena baitzuten bertako biztanleek. Azken lerroan Herri Lanetako sailburu eta Euskadiko Alderdi Komunistako militante izandako Juan Astigarribia ikus daiteke. Panamara erbesteratu zen, eta urte batzuk geroago, iraultzaren garaipenarekin, Kubara.



A L A R M A

Adi!! Badator Su Ta Gar taldearen estudioko 12. lana
Kanta indartsuak, baita xamurrak. Bizi dugun errealitatearen
ispilu zuzena. Erraietatik. Bihotzetik. Beti bezala
Taldeak eskaintzen digun ordu bete inguruko
beste bidaia zoragarri bat



PRIMIZIAN

GARA eta NAIZeko harpidedunentzat eskaintza berezia!!!

14 euro (bidalketa gastuak barne)

[Lortu zure alea igorri dizugun e-mailari erantzunez
edo denda.naiz.eus -en]

JO TA KE | EKOIZPENAK
JTK 10 sutagar.eus

GARA

Su Ta Gar